

DATORRENA

Ordezkariek Kataluniako herriari
obeditu behar diote **IÑAKI SOTO > 3**

MAREN MANTOVANI: «Ezin da hitzez
Palestina aitortu eta aldi berean
Israeli okupazioan lagundu» **> 4**

2014ko urriaren 18a | VIII. urtea • 387. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«TREBIÑU ARABA DA» ESKAERA, MADRILGO KONGRESURA

ESKAERA ASPALDIKOA IZANAGATIK -XVII. MENDEKOA-, ARTEAN EZ ZUEN LORTU TRABA
LEGALAK GAINDITU ETA MADRILA IRISTEA. AZKENEAN, AZAROAREN 11N MADRILGO
GORTEETAN TREBIÑARREN AHOTSA ENTZUN BEHARKO DUTE. **> 12** Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



4

E.lkarrizketa: Maren Mantovani,
Stop The Wall-eko kidea 04

Hong kong, aterkien iraultza 07

Ginearrak; herrian, ahaztuta eta
kanpoan, lupaz zainduta 08

Trebiñu Arabara batzeko eskaera
Madrila helduko da 12



8



22

Zarainenea etxaldeko nekazari-
abeltzain ekologikoak 18

E.lkarrizketa: Pello Irujo, NIEko
lehendakari berria 22

Feminismoaren aztarna
pegatinen bitartez 25

In fraganti: Koldo Salinas 28



25



28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Ordezkariek Kataluniako herriari obeditu behar diote
- 09 **Koldo Sagasti:** Eskaliburren bibolina
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Jane Jacobsen paradoxa
- 11 **Ramon Sola:** «Naparra», pelikula izan ezin duen historia
- 17 **Ainara Azpiazu «Axi»**
- 20 **Arantxa Urbe:** Eskola ekonomiaren itzalean handitzen hasi zenekoa
- 21 **Garazi Goia:** Ironia, eta emakumea galtzen
- 27 **Amaia Agirre:** Mezulariak
- 31 **E-makumeak taldea:** Teknologia, hezkuntza eta generoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN, HEZKUNTZAREN, KONTAGIEN
GABETASUNAREN, LAGUNTZA

{ datorrena } Iñaki Soto

Ordezkariek Kataluniako herriari obeditu behar diote

Katalunian aurreikus zitezkeen agertoki posible guztietatik, bakar batean ere ez zegoen Artur Mas Barçako txandala jantzita Plaça de Catalunya-ko kanpaldi batean gaua igarotzen zuen agertokia. Izan ere, nire ustez, auzia ez da Artur Masi desobedientziaren ikurra bere gain hartzeko eskatzea, baizik eta herriak emandako mandatuari fidel mantentzeko exijitzea. Aukera hau errealistagoa dirudi, berarentzat defendatzen errazagoa da eta gainontzekoentzat zentzudunagoa da. Oraingoz, herriaren mandatua argia da, «*volem votar*», eta aste honetan eragin duen krisian gainontzeko alderdiekiko eta gizarte zibilaren ordezkarietako fidela ez izan arren, Masek ez du mandatu hori hautsi, inondik inora.

Egia da espainiar Estatuari desobeditzeko unea helduko dela, zalantzarik gabe, eta prozesuak aurrera egingo badu Masek, edo dena delakoak, injustuak eta antidemokratikoak diren agindu legal, politiko eta militar horiek desobeditu beharko dituela. Une horretara helduta zer egingo ote duten? Konbergenteak dira, eta horrek berak zalantzak eragiten ditu. Zehatzago, Artur Mas ditxosozko Estatut-a atzetik eta ilunpean José Luis Rodríguez Zapaterorekin birnegoziatu zuen berbera da. Azpijoko horren antzukeriaren testigu pribilegiatua ere bada, baina lezioa ikasi duenik ezin da guztiz ziurtatu. Jakina dagoe-la berari eta bereei ez fio izateko arrazoirik.

Halere, hau ez da balizko une hori. Esan bezala, Masek ez du oraingoz herriak emandako mandatua hautsi, eta bozketaren baldintzak aldatu baditu ere, azaroaren 9an kataluniar herritarrek bozkatu ahal izango dute, adostutako galderak erantzungo dituzte eta beren gogo demokratikoa efektibo egiteko urrats berria emango dute. Euskal aberkide eta espainiar agintari zenbaitek uste edo nahi zutenaren kontra aste honetakoa ez da «Ibarretxe moment» bat izan.

[Artikulu hau Kataluniari buruz bada ere, ez nuke gureari buruz apunte bat egiteko aukera galdu nahi. Kataluniaren harira Ibarretxetaz hitz egin nahi badugu, hitz egin dezagun garai hartan norberak egin zituen akatsez, ez besteen erruaz, mesedez. Eta hitz egin dezagun etorkizunaz, ez soilik iraganaz. Kataluniako errealtatea ez ba-

dugu gure nostalgiekin desitxuratu nahi, errespetu internazionalistari jarraituz, ez gaitezen CUPekoak baino CUPistagoak izan. Bide batez, orain CUPekoak bikain ari-tu direla iruditut zait; orain bai, beraien testuinguruan jokatzu eta beren izaerari eutsiz, Ibarretxeren garaiko «3 bai, 3 ez» jokaldia berrasmatu dutela esan daiteke].

ANCREN ESKU DAGO 9N BERRIAN KAPITAL POLITIKOA AREAGOTZEA

Bihar ANCK 9N berriari buruzko iritzia emango du. Oro har, beren esku dago krisi honetatik indartuta edo ahulduta ateratzea. Besteak beste, krisiak eragindako une emozionalari buelta emateko gaitasuna duten bakarrak direlako. Beren esku dago ere bozketa honetan bi milioi-tik gora herritarrek parte hartzea, baita ondoren kapital politiko hori kudeatzea ere, bai herritarren mandatua berresteko bai alderdiak desobeditzera bultzatzeko, hori bai, behin betiko unea heltzen denean. Kataluniaren ka-

Une honetan Artur Mas desobedientzia eskemetan ikustea ez da aukera erreala, baina batez ere orain hau ez da benetako eztabaida. President-ak bere herriaren mandatua obeditu behar du, eta kito

suan, ANCK alderdiek lortu ez duten –eta agian lortu ezin duten– zentralitate politiko eta soziala lortu duela uste dut. Alderdien interesek eragiten diete, baina ez dira horien guztiz menpeko. Bitartean, ERC, adibidez, Katalunia independentearen lehendabiziko hauteskundeak lehia-tzean baino gehiago gaur egungo Kataluniako azken hauteskundeak irabaztean pentsatzen ari dela dirudi.

Beste alde batetik, prozesuaren herrikoitasuna dela eta ez dela, niretzat talka ez da eliteen eta masen artekoa, igualeko elitea baitira, esaterako, Artur Mas eta Carme Forcadell, igualak ez badira ere. Bakoitza bere esparrutik herritarren zerbitzura egotea da gakoa. Berdin urgentzia eta *tempus*-arekin: «*Ara es l' hora*» desberdin neurtzen baita pertsonen, alderdien edo herrien ordularietan. Urrutitik ikusita, gure krisi politiko guztiak izan daitezela kataluniarrek bizi izan duten honen antzekoa, arren. •

«Ezin da hitzez Palestinaren aitortza bultzatu eta aldi berean Israeli okupazioan lagundu»

Elkarriketa honekin jazotakoak ongi islatzen du palestinarrek egunekotasunean jasan behar duten egoera. Jamal Jumak, Stop The Wall kanpainako koordinatzaileak, Mantovanirekin batera egon behar zuen Bilbon. Baina ez da egon. Ezin izan du egon, Jordaniako pasaporteak edukiarren –duela gutxi arazorik gabeko berritua, gainera–, bertako agintariak, Israelgoekin elkarlanean, ez baitiote lurralde palestinarretik ateratzen utzi.

Bidaia antolakuntzan aritu diren Bakea eta Duintasuna eta

Biladi elkartearen iritziz, oztopoek Juma eta hark apartheidaren aurka egindako borroka isilarazteko helburua dute.

Jumak etortzerik izan ez duenez, Mantovanik bere gain hartu du Euskal Herrian Palestina-
ren berri emateko ardura.

Duela egun gutxi irudi historiko bat ikusi genuen: Palestinako batasun Gobernuak Gazara eginiko bisita. Zer esanahi izan dezake argazki horrek eta exekutiboaren beraren osaketak?

Israelek eta nazioarteko bere aliatuek 60 urte baino gehiago daramatzate herri palestinarra

banatzeko lanetan. Ez naiz soilik fakzio politikoen arteko banaketaz ari, herritarrak eurak ere banatu nahi dituztelako, izan Gazan okupaziopean bizi direnak, Zisjordanian okupaziopean bizi direnak, errefuxiatuak edo Israelen bizi direnak. Testuinguru honetan, beti da positiboa batasuna bilatzea.

Arlo politikoan, Gaza berreraikitze lanez gain, ikusteko dago batasuneko Gobernu honek nola egingo dien aurre dituen erronkei. Ezin pentsa daiteke Gaza berreraikitzeak egungo arazo guztiak konponzen dituela: estalperik gabeko kartzela da oraino.



MAREN MANTOVANI

STOP THE WALL-EKO KIDEA

Gaza eta Zisjordaniako egoera latzak ongi ezagutzen ditu. Horregatik dio ezinbestekoa dela, aldaketa lortze aldera, Israeli presio handiagoa egitea.

Ruben PASCUAL (@GARA_rpascual)

Israelek Gazako sarraskia erabiltzen du Zisjordanian garbiketa etnikoa eta kolonizazioa bizkortzen ari dela estaltzeko. Ez dute soilik Gaza suntsitu nahi, laborategi gisa erabiltzen dute Zisjordania ere aire zabaleko kartzela bihurtzeko.

Eta, noski, honi aurre egitea erronka handia da Gobernuarentzako.

Denek egiten dute bat Gazaren berreraikuntza lehentasuna dela esaterakoan.

Gaza berregiteaz mintzo garenean, ez dugu horretara bideratutako dirua bakarrik hartu behar kontuan, honekin guztiarekin nork irabazten duen eta zertarako egin duen ere aztertu beharra dagoelako.

‘Berreraikuntza-Sarraskia-Berreraikuntza’ etengabeko ziklo baten aurrean baldin bagaude, beti berdinak ateratzen dira irabazle eta galtzaile.

Israel esaten ari da, ia inolako oposiziorik gabe, berregite lan horiek bere segurtasuna mehatxatzen dutela. Lanerako material horiek modu desegokian erabiliko ez diren berme gisa Israeli erosi behar zaizkiola diote. Honek esan nahi du Israel irabazle ateratzen dela palestinarrek hiltzerakoan, gerora mundu zabalean salduko dituen armak frogatzeko aukera duela eta, gainera, berreraikuntza lanetara bideratutako diru guztia bereganatzen duelako.



Batasun nazionaleko Gobernuari nola begiratzen diote palestinarrek? Itxaropena edo eszeptizismoa da nagusitzen den sentimendua?

Eszeptizismoa da orain hitzik egokiena. Maila diplomatikoan egin diren proposamenek ez dute itxaropenerako aukera handirik ematen. Okupazioari bukaera emango dion plan bat NBERen Segurtasun Kontseilura eramateaz hitz egiten ari dira, eta denok dakigu zein den horren ibilbidea.

Ekimena aurkeztu dutenek ere badakite ez dela gauzagarria, Ameriketako Estatu Batuen betoarengatik baino ez bada ere. Egoera honetan, ikus-teko dago batasun Gobernu hau gai den borrokan urrats bat eman eta, nazioarteko legeria oinarri hartuta, Nazioarteko Zigor Auzitegira jotzeko eta eskura dituzten baliabide guztiak erabiltzeko palestinarren aurka krimenak egin dituztenen aurka.

Gaza berreraikitzeke dirua ematen duten zenbait herrialderen jarrera ere aipatu behar genuke, aldi berean Israelekin armak salerosteko kontratuak dituztelako. Zer egin daiteke alor honetan?

Lehenik eta behin, gobernuak sarraski eta berreraikuntzen ziklo honetan parte hartzearen aurkako kanpaina bat burutu behar da.

Era berean, gobernuak nazioarteko legeriarekiko dituzten betebeharrei eutsi behar diete, horren arabera ezin baitiote laguntzarik eman gerra krimenak, izan Gazaren aurkako eraso militarra, harresia edota koloniak.

Horrez gain, Boikot, Desinbertsio eta Zigorren (BDZ) aldeko kanpainak egin behar ditugu, gobernuak zuzendutakoak ez ezik, Israelekin lanean ari diren enpresa, unibertsitate edo bankuei ere bideratuak.

Norabide honetan lan egiten jarraitu beharra daukagu, okupazioa eta apartheid egoera finantzatzen segi ez dezaten eta, hala, sistemak jasangarri izaten jarrai ez dezan.

«Arma berriak frogabaditzake eta Gazaberreraikitzeke diruarekin geratzen bada, Israel irabazle ateratzen da palestinarrek hiltzerakoan»

«Zisjordanian garbiketa etnikoa eta kolonizazioa gero eta bizkorragoa dela estaltzeko erabiltzen du Israelek Gazako sarraskia»

Azken urteotan garaipen handiak lortu dituen arren, erakunde eta enpresa ugari ez dute BDZ kanpainarekin bat egin nahi, esanez ezin dela israeldar izate hutsagatik inor diskriminatu. Kontzientziarlan handiagoa behar al da?

Argi utzi behar da, beste ezer baino lehen, ez dela inor israeldar izateagatik bakarrik boikotatzen. Palestinaren okupazioa garatzen, babesten edo errazten duten enpresa, erakunde eta ekimenentzako eskatzen ditugu boikota, desinbertsioa eta zigorrak.

Apartheid sistema batez ari gara. Ez da gobernu jakin bat txarra dela edo gustuko ez dugula eta hauteskundeak iritsi arte itxaron behar dugula, erregimen osoa da aldatu behar dena.

Sistema horrek garamatza, hain zuzen, zinean baleude bezala Gazaren aurkako bonbardaketak ikustera sofak hartu eta muinoetara igotzen ziren israeldar horien gisako irudiak ikustera...

Hori da. Inor ez da halakoa izaten jaiotzetik, sistemak bideratu ditu horrelakoak egitera. Eskolan palestinarrek gorrotatzen irakasten badiete, ondoren zerbitzu militarra egitera behartuta badaude eta gero telebista eta unibertsitateetan arabiarren aurkako gorrotoa baino erakusten ez bada, bistakoa da bere gizatasunaren parte handi bat galdu duen gizartearen sortzen ari direla.

Berriki, Suediak, Europar Batasuneko kide izanda, Palestina estatu onartzeko prest dagoela esan du eta, aste honetan bertan, Parlamentu britainiarrak gauza bera gin dezala eskatu dio Gobernuari. Gazako azken sarraskiaren ondotik zerbait aldatzen ari dela esan nahi du honek?

Seguru aldatu egin dela, eta are gehiago aldatzen ari da. Azken hamar urteotan sakonago inplikatu naiz palestinarren aferan eta, ikusi dudanez, gero eta gehiago ulertzen da zer gertatzen den han. Elkartasuna ere etengabe hazten ari da.



Palestina estatu gisa aitortzea bezalako ekimenak sentimendu horien erakusle dira, baina ez dute konpontzen maila globalean eta gobernu europarrekin dagoen arazo nagusia. Hitzekin Palestinaren aitortza bultzatzen denean eta, aldi berean, Israelen okupazioa militarki eta ekonomikoki sustengatzen denean sortzen den kontraesana da konpondu behar dena.

Halaber, garrantzitsua da ulertzea Palestina ez dela estatu bat. Arriskutsua da estatu palestinar bat existitzen dela pentsatzea, Israeli zilegitasuna ematen ziolako eraso egiteko, eta pentsatzeko maila berean dauden biren arteko arazoa dagoela. Erabat okupatutako eta erreprimitutako herria da egun oraindik daukaguna. Lan egin beharra dago. Ikusi nahi

genukeena esateak bakarrik ez du ezertarako balio.

Denbora palestinarren aurka doa. Gero eta sakabanatuago daude, gero eta kolonia gehiago daude, harresia aurrera doa eta beren baliabideen espolioa etengabea da. Zein neurritan zailtzen du egoera honek etorkizunean estatu palestinarra ezartzeko aukera?

IBILBIDEA

Italian jaioa da eta egun Brasilen bizi da, baina Ramallah-n eman zituen zortzi urteetan sakon ezagutu ahal izan zuen palestinarren eguneroko errealitatea, eta haien borroketan inplikatu zen, bereziki harresiaren aurkakoetan. Egun, Stop The Wall kanpainaren Nazioarteko Harremanen koordinatzailea da.

Oso baikorra zarela uste dut. Le-kuan bertan, errealitateak erakusten du Israeliek duela urte asko suntsitu zuela estatu palestinar baterako aukera. Hori agerikoa da Palestinako mapari begiratzen diogunean.

Egun, Hegoafrikaren esperientzian ezagutu genituen bantustanen bere bertsioa ari da eraikitzen Israel. Aurrez Gazan frogatutako estrategiak Zisjordanian ere aplikatzen ari dira, bertan ghettoak sortu eta herri-tarrak sakabanatzeko.

Orain bantustan horien aurka ari gara borroka egiten eta lan hori bukatzeko Israeliek zenbat denbora daukan da orain egin beharreko galdera. Eztabaidaren parametroak desberdinak dira.

Israeliek ulertu du ez zaiola denbora askorik geratzen eta horregatik hain zuzen bizkortu dituzte lanak.

Zein lanez ari gara, zehazki?

Harresiaren eraikuntza lanek aurrera jarraitzen dute. Horrez gain, palestinarren arteko zatiketa hori areagotzeko beste hainbat proiektu garatzen ari dira. Stop The Wall kanpainatik lan handia egiten ari gara orain arlo honetan.

Proiektu horiek egiteko intentzioa agertzen duten enprekin harremanetan jartzen gara eta beren jardunak palestinarren bizimoduarengan izan ditzakeen ondorioez ohartarazten diegu.

Apurka-apurka ari gara urratsak ematen eta garaipenak ere ari gara lortzen.

Zergatik ulertu du Israeliek gero eta denbora gehiago duela bere egitasmoa bukatzeko?

Boikot, Desinbertsio eta Zigorren aldeko kanpainak, efektu politikoez eta mikroekonomikoez gain, makroekonomian ere gero eta eragin handiagoa du. Europa mailako gobernuak ere hasi dira bere jarrerak aldatzen.

BDZ kanpainaren hazkunde erritmoak Israeli aditzera ematen dio gero eta denbora gutxiago geratzen zaiola.

Hori guretzako ere mezua da. Israel bera da esaten ari zaiguna BDZ kanpaina, tresna gisa, baliagarria dela.



Philippe LOPEZ | AFP



IKUSMIRA

HONG KONGEKO TXITA EZ DA TXINAKO ARRAUTZARA ITZULIKO

Leung Chun-Ying Hong Kongeko gobernadoreak (Pekine karguan jarritakoak) bertako ikasleak erotu nahi dituela dirudi: egun batean Polizia bidaltzen die egurra ematera; hurrengoan elkarriketa eskaintzen die, berehala bertan behera uzteko; eta manifestari gazteek ka-
lean jarraitzea erabaki dutenez, elkarrekin hizketan

hasteko aukera aipatu die berriz... Agintariaren azken umore aldaketa asteazkenean ezagutzera emandako bideo batek eragin du: zenbait agente manifestari bat jipoitzen ageri dira, edonor haserretzeko moduko irudietan. Edonola ere, Aterkien Iraultzarekin bat egin duten herritarrek badakite zer nahi duten, benetako demokrazia, eta ezin dute onartu Pekinek eskainitako esperi-
mentua: «Zuek botoa eman nik alde zuretik aukeratutako hauetako bati». Chin-Hsing Liu Taiwaneko irakasle erretiratuak bisita egin zien manifestariei. Honela laburtu du ikusitakoa: «Ezin duzu arrautzan berriz sartu jadanik atera den txita». joseangel.oria@gaur8.info

EBOLA

Herrian ahaztuta eta handik kanpora lupaz zainduta bizi dira ginearrak

 JENDARTEA / Maider Eizmendi

Ebolaren epidemia triskantza eragiten ari da Afrikako hainbat lurraldetan eta beldurra, berriz, munduko bazter guztietan. Liberiarekin eta Sierra Leonarekin batera, Ginea da gaixotasunak gehien kolpatu duen eremuetako bat. Hain zuen ere, bertan agertu zen joan den abenduan Ebola birusaren lehen arrastoa, zero kasua ere deitua izan dena.

Ordutik, Osasunaren Mundu Erakundeak aditzera eman duenez, 1.350 pertsona kutsatu dira birus honekin Ginean eta horietatik 778 hil dira. Osasun arloko autoritateek arretaz begiratzen dituzte birusak kaltetu aurretik ere arazo sozioekonomiko larriak zituen estatuko herritarrrak. Egoera halakoa izanagatik, herritarrek euren egunerokoa ere jarraitzen dute.

Bertakoek diote hiriburuak, Konakryk, oso bestelakoa den irudia agertzen duela orain. Munduak bakartu izan balitu bezala, atzeritik bertaratzen den jende kopurua asko murriztu da eta hori eremu hainbatetan nabaritzen da. «Gure buruaren gainetik igarotzen diren hegazkinen burrunba nabarmen murriztu da; atzeritarrek maletak egin dituzten eta hutsik utzi dituzte hotelak eta jatetxeak...», aipatu du, esaterako, Alimou Sow blogariak bere orrialdean. Atzeritarren ihesaldia sarean ere nabari dela ohartarazi du. Haiek dira internet gehien baliatzen dutenak eta Ebola epidemia zabaldu zenetik «konexioak askoz ere azkarrago» doazela ere adierazi du, egoera latzean eta ironia baliatuta positiboa den arlo hau nabarmenduta.

Ekonomian izan duen itzala ere handia da. Egoera politiko kaskarra bizi ostean, pixkanaka goraka ari zen; iaz %2,5 hazi zen eta %3,9 2012an. Aurreikuspenek 2014rako %4,5eko igoera aurreratu zuten, baina orain ez dakite %2,5era iritsiko den. Ekonomiaren gorakadaren esperantza atzerriko inbertsioetan jarria zuten eta horiek atzera egin dute.

Ebola birusak gehien kaltetu duen herrietakoa, atzeritik alarma begiekin baino ez da begiratzen lehen kasua lehertu zen estatua, Gineara. Hala, ekonomia arloan triskantza eragiten ari da osasun krisia, inbertsioek ihes egin dutelako. Herritarrek, halabeharrez, euren egunerokoarekin jarraitzen dute. Gineako mugetatik kanpo beldur eta bazterketa begirada jasan behar dute, Brasilen esaterako.

Azken egunetan Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) aditzera eman duenez, birusaren transmisioa geldituta ere, herrialdeko ekonomia oso atzeratuta geratzeko arriskua dago. Iturri berberak aipatu dute herrialdeko ekonomiako sektore guztietan eragina izan duela eta krisia eragin duela herrialdeko osasun sisteman. «Ebola osasun zerbitzuak gelditzen ari da; negozioak ixten ari dira eta oinarrizkoak diren elikagaien produkzioa, salmenta eta esportazioa kaltetzen ari da», azaldu du Magdy Martínez-Solimán PNUDKo politikaetako zuzendaria.

la eta krisia eragin duela herrialdeko osasun sisteman. «Ebola osasun zerbitzuak gelditzen ari da; negozioak ixten ari dira eta oinarrizkoak diren elikagaien produkzioa, salmenta eta esportazioa kaltetzen ari da», azaldu du Magdy Martínez-Solimán PNUDKo politikaetako zuzendaria.

riak. Hiriburuko portuko edukiontzi trafikoa murriztu egin da herenera iritsi arte, eta aireportuko bi herenak hutsik daude. Ondoko herrietara eramaten zituzten jakien esportazioa, berriz, %90 murriztu du. Egoera honen aurrean, etorkizunean izan daitekeen hondamendi

ekonomikoa saihesteko neurriak hartu behar direla ohartarazi zuen Martínez-Solimán.

Egoera halabeharrez etorri zaie gainera ginearrei. Ez dute ia beste erremediorik eta kanpotik Ebola birusaren kokaleku gisa baino begiratzen ez badiete ere, aurrera begira jarraitzen du herrialdeak beste erremediorik gabe. Kaleetan jendeak gora eta behera jarraitzen du, burrunba nabari da, «ohikoa den burrunba».

Aurrera egiteko bide horretan informazioa izatea ezinbestekoa da, bai eta arazoari behar bezalako ikuspegi eta dimentsioa ematea ere. Zenbaitek, izan ere, gogoan du dengearen epidemia zabaldutakoan herrialdean sortu zen egoera: «Akats handi bat politikarekin inolako zerikusirik ez zuen egoera politizatzea izan zen. Epidemiaren berri eman zenean jendeak ukatu egin zuen, hura ulertzeko inolako saialdi-

Herritarrei eskuak garbitzeko produktua banatzen.
Cellou BINAMI | AFP





Ginean ebolaren aurka lanean ari diren osasun arloko langileak garbiket lanean.

Cellou BINAMI | AFP

rik egin gabe», gogora ekarri du Cireass blogariak. Haren ondotik, herritar hainbat Mugarik Gabeko Medikuen Macentako bulegoetara joan ziren gezurretan ari zirela salatzeke. Orduko irakasgaia hartu beharko litzatekeela uste du, batez ere, nazioarte mailan «erabat isolatua» dagoenean. «Gure etsai bakarrenden Ebolarik aurre egitea da daukagun irtenbide bakarra», aipatu du blogariak.

BAZTERKETA BRASILEN

Ginean bizi direnak ahaztuta, handik kanpora dabiltzan herritarrak berriz tentuz jarraitzen dituzte, ez beti intentzio onenekin gainera. Brasilen aste honetan bertan baieztatu dute Gineatik iritsitako herritarrak ez duela Ebolarik. 47 urte dituen Souleyman Bah irailaren 19an iritsi zen Hego Ameriketako herrialdera eta joan den astean joan zen Cascaveleko osasun zentro batera sukarra zuela esanaz. Alarma guztiak piztu ziren eta orduz geroztik, Rio de Janeiroko ospitale batean egon da bakar-tuta. Egin dizkieten frogak Ebola duela baztertu dute eta harekin kontaktua izan zutelako zaintzapean izan dituzten herritarrak ere arriskuz kanpo dudelako ondorioztatu dute.

Kasuak oro har Afrikako herritarrekiko jarrera ezkorrak piztu dituela salatu dute, batez ere Cascaveleko herritarren artean.

«Kafetegi batean sartu, eseri eta pertsona batzuk lekuz aldatzen dira. Kanean oinez goazela entzuten dugu 'joan zaitezte hemendik, utzi nire herrialdera gaixotasunak ekartzeari', kontatu dio, esaterako, O Estado egunkariari Abdoulaye Telly Diallo 26 urteko biologo ginearrak. Ez da kasu bakarra. Burkina Fasoko beste herritar batek pareko egoera deskribatu du. «'Begira Eboladun tipoak', esan zioten Abdoul Bonsarari. «Ez dakite Burkina Faso Ebola dagoen herrialdeetatik urrun dagoela; beltzak garela ikusten dute eta kito», zioen Sitta Compaore herritarrak.

Osasun agintariek jarrera diskriminatzaile hauen aurrean neurriak hartutako dituztela adierazi dute, euren osasun sistema «unibertsala» dela argudiatuta. Halako jarrerak zabal-tzea apaltzea baino errazagoa da zenbaitetan, ordea.

Gineako hiriburuko portuko edukiontzi trafikoa murriztu egin da herenera iritsi arte, eta aireportuko bi herenak hutsik daude gaur egun

Aurrera begira jarraitzen du herrialdeak beste erremediorik gabe. Kaleetan jendeak gora eta behera jarraitzen du, burrunba nabari da, «ohikoa den burrunba»

Eskaliburren bibolina

Koldo Sagasti

Espainia da, AEBekin batera, Ebolak jotako gaixo kopuru handiena daukan herrialdea». Halaxe zioen Vocento taldeko zenbait hedabidek argitaratutako titularrak. Uste dut irakurle oro konturatu zela astakeriaz, baina badaezpada ere errepara diezaiegun datuei. Osasunaren Mundu Erakundearen datuen arabera, dagoeneko 4.447 lagun hil dira uztailetik hona Mendebaldeko Afrikan birusaren eraginez; eta kutsatuen kopurua 8.914koa da. Ginea, Liberia eta Sierra Leona, herrialde kaltetuenetan, 16 milioi pertsona dauka kutsatzeko arrisku larrian, horietatik 8,5 milioi haur. Eta oraindik ba al da Espainia eta AEBak izurrite honen kaltetuenak direla sinestera ausartzen denik? Zer iradoki nahi du prentsa kontserbadoreak titular horrekin? Akaso Ginea, Liberia eta Sierra Leona mapatik ezabatu behar ditugula? Agian bertan kutsatutakoak ez direla pertsonak? Edo akaso gaixo horiek ere, edo zergatik ez, afrikar guztiak ere mapatik ezabatu beharko genituzkeela?

Beharbada galdetu beharko genieke Espainiako plazetara Eskalibur txakurraren defentsan atera ziren bihotz oneko hiritarrei. Ez dut esango txakurrak errukirik mereziko ez zuenik, are gehiago arrazoizko ikuspuntu batetik. Izan ere, birusarekin harremanetan izan den ugaztun batek berebiziko garrantzia izango luke zientziaren ikuspuntutik gaixotasun kutsakor baten transmisioa ikertzeko. Baina, noski, txakurraren balizko erabilera zientifikoa bururatu beharko zitzaion garajeen Jaguar bat daukala oroitzeko adina neurona ez daukan ministro bati. Ez kezkatu, izan ere, AEBetako albistegiek, Espainiako izurritearen berri ematean, Afrikako iparraldean kokatzen dute zeren larruaren mapa. Horren arabera, Eskalibur ere, beste 4.447 hildakoak bezala, afrikarra litzateke, hutsaren hurrengo. •



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Jane Jacobsen paradoxa

Hirugarren urtea jada eta ni enteratu gabe. 2012an izan baitzen lehena -Euskal Herriko lehena, oker ez banago- Donostian, eta urtero errepikatu izan da ordutik maiatzaren hasiera buelta horretan. *Jane's walk* du izena egitasmoak, eta funtsean, paseo bat eman eta gure auzo, herri eta hiriei so egitea da kontua. Misterio handirik ez. Ala bai.

Jane Jacobs hirigile eta aktibista estatubatuarraren omenezko ibilaldiak sustatzen dituen mugimendua da *Jane's walk*, Toronton sortua Jacobs hil ondorengo urtean, 2007an. Azken egunotan ez da bere jaiotzaren urteurrenik ospatzen, ez eta bere heriotzarenik ere; ez da, ez, Jane Jacobsen nazioarteko eguna baina, hala ere -ala zer demontre, agian horrexegatik-, tenore aproposa da *The Death and Life of Great American Cities* (hiri amerikar handien heriotza eta bizitza) saiakera liburuari hautsa astintzeko.

Hiriaren konplexutasunaren aldarria egin zuen Jane Jacobsek, eta hori nola lortzen den azaltzen saiatu zen mugimendu modernoak hiriaren konplexutasuna sinpletasunean laburbildu zitekeela sinetsi nahi zuen bitartean. Ez zuen hirigintza ikasketarik baina, hala ere -ala, beste behin, agian horri esker- zehaztasun handiz identifikatu zituen auzo biziak bete beharreko ezaugarriak, dibertsitatearen kontzeptuan oinarrituta.


Dentsitatearen osagarri gisa ulertzen zuen dibertsitatea. Dentsitateak pertsona kontzentrazio altu bati egiten dio erreferentzia; dibertsitateak, aldiz, kontzentrazio altu horren heterogeneotasunari. Mugimendu modernoaren zonifikazio, segregazio eta ustezko funtzionaltasunari kontrajarrita, dibertsitateak nahasketaren aldarria egiten du: nahasketa lurzoruaren erabilerari dagokionean, aktibitate mota (eta ordutegi) ezberdinak, adin, arraza, eta errenta maila ezberdineko jendearen elkarbizitza. Baita eraikin historiko eta izkinen garrantzia, haurren jolasteko beharra eta *eyes-on-the street* ere: kale segurtasuna giza begien ugaritzean oinarritua egon dadila, alegia.

Mende erdia igaro da *The Death and Life of Great American Cities* argitaratu zenetik, eta esan liteke kontzeptu hauek guztiak barneratu egin dituela imajinario kolektiboak, teoriarik behinik behin. Esango nuke, etxe adosatuen sukarraren biharamunean, ezaugarri hauek betetzen dituzten hiri inguruneak direla, gero eta gehiago, bizitzeko toki desiragarrientzat jotzen direnak.

Baina paradoxa bat ikusten dut nik hor, Jane Jacobsen paradoxa. Izan ere, Jacobsek gogor kritikatu zuen mugimendu modernoak, forma arkitektonikoa eta hiri antolamenduaren ikuspuntutik batez ere, hiriaren konplexutasuna ulertu ez eta dibertsitatea saihesten zuelakoan. Urteek konstatazio bat sendotu dute, baina: aldarrikatzen zuen hiri ingurune heterogeneo horien arrakasta bera izan dela euren dibertsitatea arriskuan jarri duena, ia desagertzearaino. Adibide esanguratsuenak New Yorkeko Greenwich Village auzoa da, Jane Jacobsen bizileku eta case-study izandakoa, egun erabat gentrifikatua eta ez-dibertsoa dena.

Izan ere, merkatuak ez du lanik egiten debalde. Alokairuak igo egiten dira, eta zaila bihurtzen da errenta maila ezberdineko jendea topatzea; kausalitatez, arraza aniztasuna ere jaitsi egiten da. Komertzioetan ere nabaritzen da, segmentu zehatz baten kontsumo ahalmenera mugatzen baita. Ordutegi dibertsifikazioa jaitsi egiten da, eta, ondorioz, kalearen erabilera konstantea zaildu. Pixkanaka, auzo hauek zuten nortasuna galdu egiten dute, bolumetria eta espazialitate aberatsa mantendu arren.

Hirigintza postmodernoaren aitzindaritzat jotzen da Jacobs; nolanahi ere, josi gabe utzi zituen hari mutur hauek ez dira bere jarraitzaile eta oinordeko ofizialen interesekoak izan -nola ulertu, bestela, New Urbanism mugimendua-. Zorionez, beste hainbat egin diote hariari tira, Jacobsen irakaspenen beharrezko osagarri: David Harvey eta Neil Smith, ikuspuntu marxista batetik, edo Saskia Sassen edo Michael Sorkin, ildo liberalago batetik -uler bedi adiera iparamerikarrean- irakurketak ezinbestekoak dira hiri-dibertsitatearen nondik norakoak egoki ulertzeko. •



ILUSTRAZIOA: Ander GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

«Naparra», pelikula izan ezin duen istorioa

Celes Alvarez du izena. Eta izen hori eta aurpegi hori inork gutxi ezagutzen dituen arren, gure Hebe de Bonafini, gure Estela de Carlotto ere bada, izan beharko luke. Bi minutu eskas irauten du Nazio Batuen Erakundeko Desagertuen Lan Taldera Iruñetik bideoz igorri duen mezuak, baina nolako bi minutu. Esan liteke aipatzen dituen hogeita hamalau urte eta hiru hilabete biltzen dituztela 120 segundo horiek. Horietan urtzen baita geroztik egunez egun pilatutako samin osoa (milaka malko), bai eta errailetatik oraindik ateratzen den indar guztia ere (izerdi ugari). Garai bateko itxaropenak eta oraingo egia eta justizia nahiak, biak barnebiltzen ditu bideomezu zirraragarri horrek.

1980. urtean ikusi zuten azkeneko aldiz Joxe Miel Etxeberria, Celes eta Patxikuren semea, *Naparra*. Haren heriotza aldarrikatu zuen Batallon Vasco-Español zelakoak. Geroztik berrikerik ez, ezer ez. Alaba galdu zuen Estelak ere, Argentinan desagerrarazia, baina biloba behintzat aurkitu berri du, bizirik. Celesek zerbait jakin nahian, argi izpi baten zain, erlojuaren kontrako lasterketan segitzen du oraindik ere.

Honelaxe hamabi urte eman zituzten Joxean Lasaren eta Joxi Zabalaren senideek ere, 1983ko urritik 1995eko ekainera. Denon ahotan da tragedia hura, inoiz baino gehiago, atzotik pantailaratu den filmari esker. Duela hiru aste egin zen estreinaldia Donostia Zinemaldian, baina oraindik galdera batzuk dabilzkit buruan bueltaka. Izan ere, harridura handiz hartu nuen askoren ahotan zebilen us-tea; hain zuzen ere, pelikula «polemikoa» izango zela.

Harridura, bai, are gehiago hori aurreikusten zutenek (Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko arduradun nagusitik hasita) ez zigutelako argitzen polemika zertan zen zehazki. Ez ote da egia bertan kontatzen dena? Bai, bada, batere susmagarria ez den Auzitegi Nazionalak emandako epaian oinarritzen baita. Ez ote da zehatza? Ez da hori ere, errodatutakoaren %99 honelaxe gertatu zela nabarmendu baitu Pablo Malo zuzendariak (are gehiago, sinesgarriak ez ziren hainbat gehiegike-

ria ezabatu ditu). Ez ote da komenigarria? Egia jakiteak beti izan beharko luke. Orduan, ez ote zen kontatu behar? Edo akaso gehiago itxaron behar ote zen? Igaro diren 31 urteak ez al dira nahiko denbora? Benetan?

Bakar batzuen azalpen aitzakia haxe izan da; pelikulak indarkeria politikoaren zati bat baino ez duela jasotzen, kasu bakar bat, alde batekoa. Honi eutsita, ETak eragindako atentatuak zinemara eramateko erronka bota dio baten batek Malori. Baina bere buruari tranpa egiten dio, indarkeria horren inguruko filmak egon badaudelako: «Yoyes», «Asesinato en febrero» eta «Tiro en la cabeza», batzuk aipatzearren. Arrakasta handirik ez dute izan, egia da, agian bertan kontatzen dena sobera jakina delako, Euskal Herrian zein Estatuaren beste tokietan, eguneroko *telediario*, *teleberri* eta abarren bidez. Alde horretatik, «Lasa eta Zabala» filmak abantailatxo hori du, noski, orain arte

«Lasa eta Zabala»k ez du, Rebordinos jauna, polemikoa izateko motiborik, eta, beraz, ez da izaten ari. Polemika nahi bada, hor da «Naparra»ren kasua, pelikula ezin izan daitekeena, gidoirik ere ez du eta

inoiz ez baita gerra zikina gure pantailetan erakutsi.

Laster jakingo dugu pelikula zinez Estatu espainolean polemikoa ote den. Baina argi utz dezagun gurean ez dela, Rebordinos jauna, polemikoa izateko inolako motiborik, eta ondorioz ez dela izaten ari, eta ez dela izango. Polemikak bilatzen hasita, gaur arte nolatan ez duen inork ekoitzi eta filmatu galdetu ahal genioke geure buruari. Eta, bide batez, Celesen bideomezua ikusi eta entzun genezake (gaur arratsaldean zabalduko du NAIZek). Bere istorio ikaragarria, Joxe Miel Etxeberria *Naparrarena*, ezin bailitzateke inola ere ez film bilakatu. Arrazoi ukaezin batengatik, funtsean: ez du oraindik gidoirik, edo pasarte eskas batzuk baino ez. Orain dela hogeitaz Joxeanena eta Joxirena bezala, edota egun *Popo* Larrerena, Eduardo Moreno Bergaretxe *Perturrena*, Jon Anzarena bezala. •

BURGOS VS GASTEIZ

Trebiñu Arabara batzeko eskaera Madrila iritsiko da azaroaren 11n

Eskaera ez da atzo goizekoa. Trebiñu Arabara batzeko lehen saioak XVII. mendekoak dira. Geroztik, trebiñarren borroka etengabea eta jarraitua izan da. “Trebiñu Araba da” herri eskakizuna zabala eta ozena da, bertako herritarren egunerokoa asko aldrebesten duen egoera baita Trebiñu Konderria Gaztela eta Leongo erkidegokoa izatea. Burgos 105 kilometrora dago; Gasteiz, 18 kilometrora. Baina distantziak distantzia, trebiñarrek oso garbi daukate arabarrak direla.

Arabaren bihotzean dago Trebiñu, baina Arabarekin dituen loturak ez dira geografikoak bakarrik; sozialak, kulturalak, soziologikoak, ekonomikoak... Ignacio Portilla Trebiñuko alkatearen hitzetan, «lotura erabatekoa da, eta logikoena, zentzuzkoena eta argiena Trebiñu Araba izatea da. Batere zentzurik ez duena eta erabat aldrebesa dena bestea da, Trebiñu Gaztela eta Leon izatea eta administratiboki Burgosi lotuta egotea. Guk oso garbi daukagu, eta zaila da hainbestetan azaltzen aritu beharra».


Trebiñarrak nekatuta daude, urte gehiegitan aldarrikatu behar izan dute berentzat erabat agerikoa eta logikoa den egoera errealitate bihurtzea. Orain, baina, ilusionatuta eta indartsu ere badaude, azkenean ate bat ireki zaielako: Historian lehenengo aldiz Madrilgo Kongresuak Trebiñu Arabara batzeko proposamena eztatadatu du. Datorren azaroaren 11n izango da.

EUSKO JAURLARITZAREN ZUBI LANA

Trebiñu Arabara batzeko azken saio hau 2013ko martxoan jarri zen martxan. Trebiñuko eta Argantzungo udalbatzek gehiengo osoz onartu zuten Gaztela eta Leondik banatu eta Arabara batzeko prozesua martxan jartzea. Baina udalek ez dute eskumenik Kongresuraino iritsi eta ekinaldi legegile bat abiatzeko. Hartara, trebiñarrek Gasteizko legebiltzarrerara jo zuten zubi lana egin zezan, eta Trebiñu Arabara ba-

 **POLITIKA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Arabaz inguratuta dago; geografikoki, soziologikoki, ekonomikoki, kulturalki... Trebiñu Arabara estu lotuta dago. Baina, administratiboki Gaztela eta Leoni korapilatuta dago, eta mendeak daramatza soka hori askatu nahian. Azaroan, lehen aldiz, Madrilgo Gorteek Trebiñu Arabara batzeko proposamena entzungo dute.



tzeko proposamena Kongresuraino eraman zezan. Joan den otsailean onartu zuen Legebiltzarrak probintzia mugak aldatzeko ekinaldi legegilea eta Gorteetara eraman du. Asteon Portillak pozik zehaztu duenez, «azaroaren 11n izango da eztabaida Kongresuan». Eta pozik egoteko moduko urratsa da, historian lehen aldiz Madrilgo trebiñarren ahotsa entzuna izango baita.

Gastela eta Leongo estatutuek zein EAEko estatutuek jasotzen

dute probintziaren mugak arautzeko aukera, baina horretarako Madrilgo Kongresuak hori ahalbidezko lege organikoa onartu behar du. Hori defendatuko dute EAJko Xabier Agirrek, EH Bilduko Belen Arrondok eta PSEko Txarli Prietok Gorteetan, datorren azaroaren 11n. Eta bertan izango dira, ikusleen tokian, Trebiñu eta Argantzungo alkateak eta herritarrek.

«Orain arte inoiz ez dugu lortu Madrilgo Kongresuraino iristea. Esaten ziguten ilegala zela,

udalek ez baikenuen horretarako eskumenik. Azkenean bide hau topatu dugu, Eusko Legebiltzarraren eskutik joateko aukera ematen diguna. Orain Legebiltzarreko ordezkariak Madril joango dira probintziaren mugak aldatzeko aukera jasotzen duen lege organikoa defendatzera», azaldu du Portillak.

Bide berri horren atzean EHUko Zuzenbideko irakaslea den Iñaki Lasagabasterren txostena dago, Trebiñurentzat ate berria eta arrakastatsua ireki duena.

Trebiñarrek egin zioten txosten juridiko horren enkargua eta horri esker lortu dute hainbeste urtetako blokeo egoera askatzea. «Guretzat oso urrats garrantzitsua da. Orain arte legearen arazoa jartzen ziguten parean; oztopo legala omen zegoen trebiñarren borondatea aurrera eramateko. Orain ireki dugun bide berriarekin, legearen aldeko zalantza guztiak argitu egingo dira. Ez dago arazo legalik, Trebiñu Arabara batzeko lege organikoa tramitatu daiteke. Hori argi eta garbi geratzen da», nabarmendu du Portillak.

Eta legearen traba gaindituta, eztabaida bete-betean politikoa izango da. Dagoeneko legezkota ote denaren aitzakia ezingo dute erabili integrazioaren kontra aritu direnek.

«Bozkatuko den testua oso sinplea da. Trebiñuren administrazio markoa aldatzea proposatzen du; orain arte Gaztela eta Leonen esku egon da eta lege organikoak esaten du aurrerantzean Arabako eta EAEko erakundeen esku gera dadila. Horixe da, gutxi edo gehiago, lege organikoak esaten duena», agertu du Portillak.

BESTELAKO JOKO ZELAIA

«Guretzako sekulako urratsa da. Orain arte erabat blokeatuta ginen, Gaztela eta Leonen betoa oso gogorra izan delako. Eta harrituta ikusten genuen nola Gaztela eta Leon gatazka honetan epailea eta partearen aldi berean, eta egoera erabat blokeatzeko gaitasuna zuen. Guretzat arnasa hartzea izan da bide berri hau topatu izana».

Badirudi azaroaren 11n izango den bozketan ez duela aurrera egingo Trebiñu Arabara batzeko eskariak. PPK aspaldi esan zuen ez zuela onartutako, eta pentsatzekoa da Kongresuan duen gehiengo osoa baliatuko duela proposamena atzera botatzeko. Aurreikusten da PSOEek ere bide berdina hartuko duela, nahiz eta Gasteizko Legebiltzarrean bestelako jarrera agertu eta Txarli Prieto bidali lege organikoa defendatzera.

Baina emaitza kontrakoa izanda ere, trebiñarrak pozik daude,

emandako urratsa «sekulakoa eta atzera bueltarik gabea» dela uste baitute. «Bai edo ez esan beharko dute, eta dagoeneko justifikazioa erabat politikoa izango da. Guk oso adi jarraituko dugu eztabaida, ea zein argudio politiko erabiltzen dituzten Trebiñuk bizi duen egoera ez konpontzeko. Eta horren arabera, ikusiko dugu zer egin. Baina oso garbi daukagu edozein argudio politiko hankaz gora jartzeko gaitasuna dugula», jarraitu du Portillak.

Gaztela eta Leonek orain arte zerabilen argudio edo arrazoi nagusia «jabetzarena» zen. «Garaiotan jabetzaren argudioa erabiltzea erabat diskurtso feudala iruditzen zaigu, gatazkaren oinarriak bistan uzten dituen. Horrelako diskurtso bat ezin da eutsi inondik inora. Hartara, aurrerantzean joko zelaia bestelakoa izango da».

Trebiñarrek mahai gainean jarriko dute bizi duten errealitatea: Zerbitzu publikoen alorrean beren eskubideak urratuak izaten dira etengabe. Zergak ordaintzen dituzte Gaztela eta Leonek beste edozein herritarrek bezala, baina ez dituzte zerbitzuak berdin jasotzen. Betebeharrak bai, baina eskubideak ez. Eta maiz zerbitzu horiek Arabatik jasotzen dituzte, ondo zehaztu gabeko hitzarmenen bidez batzuetan, eta batere hitzarmenik gabe gehiegitan. «Bigarren mailako herritar» sentiarazten dituen egoerak pairatzen dituzte trebiñarrek egunero.

«Aurrerantzean sistematikoki jasaten ditugun gure eskubideen urraketa guztiak salatuko ditugu. Ez dugu hitzarmen gehiago onartuko. Hitzarmenak behar dira, ados, baina benetan behar dena epe luzerako irtenbide orokor bat da. Eta hitzarmenak beti dira partxeak. Politikoki justifikaezina den egoera bat bizi dugu, eta egoera irauli egin behar da, ez hitzarmen bidez tapatu. Bizi dugun zerbitzuen prekarietatea ez dugu gehiago onartuko. Bai edo bai, Trebiñuren egoera konpondu egin behar da. Eta horretarako Arabako eta EAEko erakundeek laguntza ezinbestekoa izango dugu».



Irudian, Trebiñu. Araba izateko borrokan segituko du. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Legearen traba gaindituta, eztabaida betebetan politikoa izango da. Dagoeneko legezkoa ote denaren aitzakia ezingo dute erabili integrazioaren kontra aritu direnek

«Epeak finkatzen hasiko gara. Bizi dugun zerbitzuen prekarietatea ez dugu gehiago onartuko. Bai edo bai, Trebiñuren egoera konpondu egin behar da»

«EUSKAL ERAKUNDEEK BERE SENTITU BEHAR DUTE TREBIÑU, ETA BERE ALDE BORROKATU»

Iker Gartzia Eulateko “Trebiñu Araba da” taldeko kidea da eta pozik dago ireki den bide berriarekin. Izan ere, azken urteotako saio guztiek Gaztela eta Leongo pareta zurrunarekin topo egin dute.

Azken urteotako historiari begiratuz gero, Frankismoaren ondoko lehen udal hauteskundeetan ondoren, Trebiñu eta Argantzungo udalek beste saio bat egin zuten, baina emaitzarik ez zuten lortu. Artean Gaztela eta Leongo estatutua ez zegoen martxan eta Gernikakoaren eskutik abiatu zen prozesua. Espainiako Gobernuak oztopatu egin zuen eta, zeuden arriskuak ikusita, 1983an onartutako Gaztela eta Leongo autonomia estatutuak, trebiñuarren borondatearen gainera, lege oztopo asko ezarri zituen Trebiñu Burgostik ateratzeko.

Gernikako estatutuak anexoaren baldintzak jaso zituen; Gaztela eta Leongoak, segregazioarenak. Eta horietan nabarmendu zuen Trebiñuk lotura handiagoa zuela Gaztela eta Leonekin eta Burgoekin. Modu horretan itxi zizkion ateak prozesuari eta erreferendumari.

Baina herri kontsultaren atea zabalik zegoen, eta horri bultzatza zioten trebiñuarrek. 1998an egin zen kontsulta Trebiñun. Parte hartzea %77koa izan zen, eta %68 Arabara batzearen alde azaldu ziren.

Eta galdeketa horrekin desmuntatu zen batzearen kontrakoei zerabilten argudio nagusia: «Ez dakigu herria integrazioaren alde dagoen ala ez». Galdeketak errealitatea garbi jarri zuen mahai gainean.

«Baina agian Trebiñuk lotura handiagoa dauka Burgoekin eta Gaztela eta Leongo erkidegoarekin», kontrakoen hurrengo argudioa. Eta horren aurrean ikerlan zabala egin zen ikuspegi desberdinetatik Trebiñu Arabara erabat lotuta zegoela erakutsi zuena; historikoki, gizarte mailan, alor ekonomikoan, hizkuntzari dagokionez...

«Ados. Lotura benetakoa da. Baina juridikoki ez da bideragarria», integrazioaren kontrakoei eraiki zuten hurrengo oztopoa. Bada, azkenean, traba hori ere gainditu dute trebiñuarrek, topatu dute Trebiñu Arabara batzeko eskaera modu legalean Madrilgo Kongresuraino eramateko bidea.

«Gu arabarrak gara, eta hori baino ez dugu izan nahi, benetan garena. Eusko Jaurlaritzari hori da leporatzen dioguna. Gu euskal herritarrek gara eta Eusko Jaurlaritzak bere sentitu behar du Trebiñu, eta bere alde borrokatu, guk eskatu edo ez. Askotan sentitzen dugu Trebiñukoa bigarren mailako kontua dela, eta euskal erakundeek oso epel jokatzeko dute gai horren aurrean».

Trebiñuarrek gainerako arabarren parean egon nahi dute, betebeharrak eta eskubide berdinekin.



Ignacio Portilla, Trebiñuko alkatea, eta Roberto Ortiz, Argantzungoa, Trebiñu Arabara batzeko ekimena Gasteizko Legebiltzarrean erregistratu zutenean.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«TREBIÑU ARABA DA», KOLORE POLITIKO GUZTIETAKO TREBIÑARREK DEFENDATZEN DUTEN ALDARRIA

Trebiñurena aspaldiko korapiloa da, historian barna behin baino gehiagotan askatzen saiatu badira ere, beti bere horretan geratu dena. «Guk seguru dakigu Trebiñuk beste herrialde batera batzea eskatuko balu, EAE ez den beste herrialde batera, gatazka hau aspaldian konpondua egongo litzatekeela. Uste dugu Euskal Herriak Estatu espainolarekin duen gatazka dagoela atzean. EAEko administrazioarekin zerikusia duten kontu guztiak mesfidantzaz eta tentu handiz begiratzen dira. Beti horrela izan da», kontatu du Ignacio Portillak, Trebiñuko alkatea.

Eta Frankismo garaiko gertaera bat ekarri du gogora: «Frankoren garaian, Trebiñuko alkateak –erregimenaren aldekoa zenak– Arabara batzea eskatu zuen. Ez zuten fusilatu txiripaz. Ez zuten entzun ere egin nahi ‘traidoretzat’ zituzten probintzietara batzeko

aukera. Eta beti ikuspegi horretatik begiratu izan dute Trebiñuren arazoa».

Gaztela eta Leongo PPK eta zenbait talde faxistek puntu horretan segitzen dute.

Baina, oro har, Gaztela eta Leongo politikariek gero eta nekezago defendatzen dute Trebiñu beren jabetza dela. Eta trebiñarrek gauzak oso garbi dituzte, lehen bezala orain. Aipatu dugunez Frankismo bete-betean alkate frankista bat ausartu zen integrazioaren alde egiten. Eta geroztik eta gaur arte, «Trebiñu Araba da» eskaera kolore guztietako trebiñarrek defendatzen dute. «Egoera politikoa edozein izanda ere, trebiñarrek beti defendatu dute Araba dela», segitu du Portillak. «Guk oso garbi baitaukagu: zerbait bagara, Araba gara zalantzarik gabe».

Baina, horrez gain eta batez ere, Trebiñuk bizi duen egoera administratiboak ikaragarri

korapilatzen du herritarren egunerokoa. Zerbitzuen prestazioan sortzen diren hutsuneak larriak dira, zailak, eta hain justu hori da «Trebiñu Araba da» aldarrikapenari indar handia ematen diona.

Gaztela eta Leonek ez dizkio eskaintzen Trebiñuri oinarritzko zerbitzurik; hezkuntza, osasungintza, ongizatea... horiek guztiak Arabak eta EAEk eskaintzen dizkio, nahiz eta herritarren zergak Gaztela eta Leonek kobratzen dituen.

Adibidez, medikuarenera joan behar dutenean, trebiñarrak Gasteiza joaten dira, ez Burgosa. Hala egin izan dute beti. Baina autonomia erkidego bakoitzak osasungintzaren eskumena bere egin zuenetik, egoera nekezagoa da. Berez trebiñarrek ez dute zerbitzurik Osakidetzan, baina Osakidetzara joaten segitzen dute. «Osasungintzaren alorrean ez dago inongo hitzarmenik sinatuta

Gaztela eta Leon eta EAEn artean Trebiñuko egoera zehazten duena, kontrakoa esaten bada ere. Hitzarmen orokor bat dago, mugakideak diren herrietan sortzen diren egoerak jasotzen dituen, baina ez da egia Trebiñurentzat zehazki hitzarmen bat dagoenik», esan du Portillak.

Hitzarmenik gabe, baina Arabak segitzen du –beti egin duen bezala– trebiñarren osasungintzaren zati bat bere gain hartzen. «Gaztela eta Leonen jarrera bitxia da, nolabait deitzearen. Trebiñu bere jabetza dela aldarrikatzen du, baina trebiñarrei ez die oinarritzko zerbitzurik eskaintzen. Nola ulertzen da hori? Eta Lakuaren jarrera ere ez dut ulertzen. Hitzarmenak daudela eta koordinazioa ona dela nabarmentzen du, baina ez da horrela. Osakidetzaren barnean badira aginduak, barrura begirakoak, eta esaten dute trebiñarrak erietxera etortzen direnean Osakidetzakoak balira bezala hartu behar dituztela. Baina barne mailako irizpideak dira, ez hitzarmen orokor baten baitakoak». Horrek, noski, segurtasun eza eta nahasmena sortzen dizkie trebiñarrei.

Zerbitzuen afera horren ondorioz, trebiñar asko Trebiñun erroldatu beharrean Gasteizen erroldatzen da, modu horretan zenbait zerbitzu ziurtatzen dituztelako; berdin haur txikiak dituztenak eta haur eskolen beharra dutenak; berdin adinekoak direnak eta egoitzen edo bestelako zerbitzuen beharra dutenak. Eta horrek eragin zuzena dauka Trebiñuko udaletan, diru laguntzak biztanle kopuruaren arabera banatzen direlako. Eta, bistan denez, Trebiñuko erroldak ez dute errealitatea islatzen.

Portillaren esanean, «banatutako bikoteen errolda zabalena dugu Estatu mailan. Datu esanguratsua da. Zergatik? Ba bikoteek kide bakoitza toki batean erroldatzea erabakitzen dutelako; bat, Araban eta, bestea, Gaztela eta Leonen».

KORAPILO ADMINISTRATIBOAK

Errenta aitorpena

«Gaur errenta aitorpena egitera joan naiz, Gasteizko lurralde ordezkaritza. Burgosko araubidea kontuan hartuz egin dut, Trebiñun erroldatuta nagoelako. EAEko araudiaren arabera, emaitza oso bestelakoa litzateke. Nire aldekoagoa izango litzateke nabarmen. Arabako Ogasunaren baldintzak askoz hobeak dira guretzat, baina Gaztela eta Leongoen mende gaude».

Errehabilitazioa

Trebiñuko adineko emakume batek errehabilitazioa behar zuen. Batean eta bestean kontsulta egin ondoren, Gaztela eta Leonek erabaki zuen Burgosen egin behar zuela. Egutero 100 kilometroko bidaia ezin zuenez egin, Burgosko egoitza batean egon behar izan zuen errehabilitazio saioek iraun zuten bitartean.

Okupazio zentroa

Elbarri dagoen herritar bat okupazio zentro batera bidali zuten Gasteiza. Zerbitzua eskaini zioten, baina jatekoa kobratu egin nahi zioten, jangelako zerbitzua pribatizatuta zegoelako eta jangela kudeatzen zuen enpresa pribatu horren kontratuan ez zelako sartzen beste erkidego bateko herritar bati zerbitzua eskaintzea.

Errolda

Banatuta bizi diren bikoteen ehuneko altuena du Trebiñuk Estatu mailan. Izan ere, erabat ohikoa da bikoteko kide bakoitza toki batean erroldatuta egotea; bat Trebiñun bertan eta, bestea, Gasteizen. Hartara, zenbait zerbitzu EAEko administrazioek eskaintzea ziurtatzen dute, haur eskolak, zaharren egoitzak...



Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

ROBERTO ORTIZ

ARGANTZUNGO ALKATEA

«Integrazioak asko hobetuko luke trebiñarren bizi kalitatea»

herrian erroldatzearen aldeko kanpainak. Zerbitzu ahalik eta hobeak emateko oso garrantzitsua da. Eta, gainera, erroldaren arazoa medio, kontzejuak desagertzen joateko arriskua ere hor dago.

Hitzarmenen bidez ari zarete zerbitzuak ziurtatzen.

Hitzarmenen sistema ez da egokiena. Egoera berri bat sortzen den bakoitzean, partxe bat jartzen da. Eta horrek nahasmena sortzen du eta batzuetan arazo larriak. Hor daukagu duela hilabete batzuk Argantzunen hildako neskato txikiaren kasua. Epaitegietan dago kontua, eta argituko da. Baina egia da herri hauetan bizi den segurtasun eza ez dela lagungarria. Irtenbidea Trebiñu Araban integratzea da, zalantzarik gabe.

Zure buruhausteen artean dago integrazioarena?

Bai. Baina nire kezkarik handiena herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea da, toki batetik edo bestetik etorrita ere. Herritarren ongizate maila da nire kezkarik handiena eta, noski, integrazioaren gaiak zerikusia du horretan. Baina, denaren gainetik, gure erronka herritarren ongizatea eta bizi

kalitatea bultzatzea da eta, bide horretan, integrazioa mesedetan izango litzateke zalantzarik gabe.

Badirudi lan administratiboa askoz nekezagoa dela zuena bezalako egoera berezian.

Etengabe gaude batzuekin eta besteekin harremanetan, gure beharrak azalduz eta irtenbideak topatu nahian. Egia da beste edozein udal baino izapide gehiago egin behar dugula gauza berdinak lortzeko. Krisiarekin, gainera, egoera okertu egin da. Dirua dagoen garaian, errazagoa da proiektuak aurrera ateratzea. Eskasia dagoenean, berriz, ate bat eta bestea jo arren, zailagoa da, eta egoera administratiboak ez du laguntzen.

Azaldu zuen borroketako bat.

Ikastolarena aipatuko nuke. Argantzunen euskarazko irakaskuntza eskaintzen duen ikastola daukagu eta Gaztela eta Leondik ez du inolako laguntzarik jasotzen. Behin baino gehiagotan joan gara Burgosa Hezkuntza Sailera, eta atea itxi digute guztietan. Esaten digute badela dagoeneko eskola bat Trebiñun eta hara bidaltzeko haurrak, ez ikastolara.

Zergatik zara Trebiñu Araban integratzearen aldekoa?

Arabaren bihotzean gaude eta lotura anitzak ditugu –soziokulturalak, politikoak, ekonomikoak, aisialdikoak...– Arabarekin. Arabaz inguratuta gaude, baina Burgos gara. Burgos 100 kilometrora dugu eta Gasteiz, 18 kilometrora. Logikoa da, zalantzarik gabe, Trebiñu Araba izatea. Gainera, onartu beharra dago Arabak Gaztela eta Leonek baino garapen handiagoa duela eta baliabide gehiago eta hobeak dituela. Horregatik ere Araba izan nahi dugu.

Alkate bezala, nola korapilatzen du egunerokoa egoera administratiboak?

Arazo nagusietako bat herritarrak Araban erroldatzen direla da, zerbitzu

hobeak jasotzeko. Trebiñu inoren lurraldean dago, eta horrek egunerokoa zaildu egiten du. Eta udal bezala sekulako arazoa da gure herritarrak, nahiz eta hemen bizi, beste nonbait erroldatzea, Estatutik Udalarari dagokion dirua baino gutxiago jasotzen baitugu. Estatuak diru hori erroldaren arabera banatzen du eta uste dugu Argantzunen bizi diren herritarren erdia baino ez dagoela bertan erroldatuta. Horrek esan nahi du Estatutik jasotzen dugun dirua berez dagokigunaren erdia dela. Eta gu bezalako herri txiki batentzat, gure aurrekontu mugatuarekin, hori traba handia da.

Kanpainak egiten dituzue, ezta?

Maiztasunez egiten ditugu herritarrak



Ekaitz Lotina, ikastolako irakaslea, eta Iratxe Garcia de Eulate, guraso elkarte-ko lehendakaria, Argantzongo ikastolako haurrez inguratuta.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

GAZTELA ETA LEONEN BAITAN DAGOEN IKASTOLA BAT

Argantzungo ikastola 2003an hasi zen lanean, hamaika haurrekin. Orain, 40 haur ditu eta Haur Hezkuntza eskaintzen du, 0-6 urte bitartekoa. Arabako Ikastolen Elkar- teak eta Trebiñu-ko udalek bultzatutako proiektua izan da hasieratik.

Ikastolaren aurretik panorama bestelakoa zen: Eskola publiko-ko bazegoen, Gaztela eta Leon- go administrazioaren esku, eta bi haur zituen. Gaztelania hutseko irakaskuntza zen eta eskola itxi egin zuten, haur falta zela eta. Hartara, euskaraz ikasi ahal izateko haurrak herritik atera behar izaten zituzten nahitaez, Gasteiza edo Langraitza.

Trebiñun euskarazko hezkuntzaren aldeko eskaria gero eta ozenagoa zen, herritarrek D eredu- a nahi zuten, eta behar horretatik sortu zen ikastola. «Egina zegoen galdeketa bat etxez etxe haurren eskolatzeari buruz eta B eta D eredu- en aldeko jar- rerrak gailendu ziren. Hartara, 2003. urtean eskola bat irekitzeko aukera egon zen, eta ba- genekien bazela herrian ikastola- ren aldeko apustua egingo

zuen jendea. 0-3 urte bitarteko haurrak zituzten familia guztiei deitu zitzairen telefonoz udale- txeetatik, eta banan-banan azal- du zitzairen proiektu bat jaiotze- ar zela, eta asanblada bat antolatu zen, herritarrei asmo- en eta proiektuaren berri ema- teko. Eta horrela abiatu zen 0-3 urte bitarteko eskola moduko bat. Hasieran 1-2 urteko haurrak zeuden bakarrik; pixkanaka es- kaintza zabaltzen joan gara eta gaur egun 0-6 urte bitarteko haurrak hartzen ditugu», ager- tu du Ekaitz Lotinak, ikastolako irakasleak.

Ikastolak sekulako garrantzia dauka herriarentzat, bizitasuna ekarri dio eta topaleku ere bihur- tu da. «Hau erdigune bihurtu da, inguruko herrietatik ere haur as- ko etortzen da eta ikastolaren bueltan batzen gara guztiok. Ho- rrek herriari sekulako bizitza ematen dio eta, gainera, euska- rekiko lotura sendotu da. Galde- ketek garbi uzten dute azken ur- teotan Trebiñun gora egin duela euskarak, azken hamar urteotan bikoiztu egin da euskara dakite- nen kopurua», azaldu du Iratxe

Garcia de Eulatek, guraso elkar- te-ko lehendakariak.

Denetarik elkartzen da ikasto- lan; badira euskararekiko lotura estua duten familiak eta badira, euskararekin lotura estuegirik izan gabe, hezkuntzaren kalitate- agatik hurbildu direnak ikastola- ra. Eta horiek ere, azkeneko, euskarara hurbildu dira. «Horie- tako askok Lehen Hezkuntzan ere D eredu- a aukeratzen dute eta batzuek Ikastolen Elkar- tearen ba- rruan jarraitzen dute, nahiz eta Burgosekoak izan. Badira aita eta ama Burgosekoak izan eta euska- raz ikasten ari diren haurrak», agertu du Lotinak.

«Ikastola erdigune bihurtu da, inguruko herrietatik haur asko etortzen da eta ikastolaren bueltan batzen gara. Gainera, euskararekiko lotura sendotu da»

«Liburu guztiak itzuli behar izan ditugu euskaratik gaztelaniara eta Burgosko ikuskatzaileari bidali dizkiogu. Ez dakigu irakurri ote dituen, baina baimena eman digu»

Argantzungo ikastola paraje ederrean dago, zelaiez inguratu- ta. Ikastola txikia da, talde txi- kiekin lan egiten duena eta ho- rrek kalitatezko eta haur bakoitzaren neurriko hezkuntza emateko modua errazten du. Baina inoiz ez da erraza izan ikastolaren bidea, eta neketsua izaten segitzen du, berez Gaztela eta Leonen dagoen ikastola bat delako. «Administratiboki Gaz- tela eta Leonen gaude eta ez du- te ikastola hau onartzen, ez dute kontzerturik ematen. Burgoseko agintariekin bildu izan gara eta argi eta garbi esan digute: ‘Ez dugu eskola hori onartzen eus- karazko irakaskuntza eskain- tzen duelako’. Haien esanetan, Trebiñun badago kontzertatuta- ko eskola bat eta bertara eraman behar ditugu gure haurrak». Ho- rrek esan nahi du Gaztela eta Le- ondik ez datorrela ez dirurik ez- ta baliabiderik ere. «Baimena ematen digute, legala da ikasto- la, baina ekonomikoki ez digute ezer ematen, ezta baliabidetan ere. Bere- z, haur kopuruagatik, badagokigu laguntza, baita ira- kasleak ere, baina Gaztela eta Leonek esaten du zentro hone- tara ez dutela ezer bideratuko. Prest daude hurrei autobusa eta jangela ordaintzeko baldin eta eskola erdaldun batera era- maten baditugu. Haurrak hara eramango bagenitu, diru gehia- go emango lukete. Baina ikasto- larentzat, batere ez. Eta, noski,

gu ez gaude hemen erdaraz ira- kasteko, ezta?», galdera zuzena Lotinak.

Ikastolen Elkar- teko elkartasun kutxa, gurasoen kuotak, udalen laguntza, eta abar; nekez egiten du aurrera ikastolak ekonomi- koki. «Azken urteotan joan izan gara Burgosa, Hezkuntza Dele- garitzara, berez eskola bezala dagokigun dirua eskatzera eta beti ezezkoa jaso dugu. Horrega- tik segitzen dugu, beti egon ga- ren bezala, Euskal Herrira begi- ra. Guk ez dugu eskatzen gehiago, gainontzeko ikastolen parekoa eskatzen dugu. Hain- beste gela ditu ikastolak, or- duan, zer dagokio? Ikastola bes- te leku batean egongo balitz, zein diru jasoko luke? Horixe da eskatzen duguna, ez gutxiago eta ez gehiago», esan du Loti- nak.

Laguntzei dagokionez, Argan- tzungo ikastola ez dago inongo zerrendan, ez Gaztela eta Leon- goan, ezta Arabakoan ere.

Curriculumarekin ez dute ara- zorik izan, Haur Hezkuntza de- lako, ez delako derrigorrezkoa eta diru laguntzarik ez dagoela- ko tartean. «Liburu guztiak itzuli behar izan ditugu euskaratik gaztelaniara eta Burgosko ikus- katzaileari bidali behar izan diz- kiogu. Ez dakigu irakurri dituen edo ez, baina baimena eman di- gu, segitu du irakasleak.

Proiektu izugarri bizia eta ilu- sionagarria da Argantzungo ikastolarena, beste toki batzue- tan ez dituzten aldapak eta ne- keak dituzten arren, «hautes- kundeak izaten diren aldiro joan behar izaten dugu Gasteiza, bulegoren batera, gure egoera azaltzera. Berriz zerotik hasi be- har izaten dugu, ez garelako inon azaltzen. ‘Baina zuek Bur- gos zarete?’. ‘Gu Trebiñu gara eta Araba izan nahi dugu’, eta berriz martxan jarri behar izaten dugu burokraziaren elefante izugarri hori».

Peio, Michèle, Katixa & Unai

familia tradizionala
aktualidadeaz hitzketan



iRRIZTZIA:



Ainara
Azpiazu
'AXPI'



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Erriberagoitiko paisaia aldakorrean, erkametzek eta arteek gobernatutako muino leunak eta zereal lursail zabalak tartekatzen dira. Arabako hegomendebaleko mugako udalerri honek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren eremua izaten jarraitzen du. Pobes herrigunetik irtenda, hiruzpalau etxez osatutako herrixka sakabanatuak daude: Padul, Biloria, Arreo, Villambrosa. Azken honetan, Alfredo Alonsok eta bere familiak belaunaldiak daramatzate zereala ekoizten, haragitarako eta esnetarako ganadua hazten, erleak zaintzen... Duela bost urte ekin zion nekazari arabarrak ekoizpen ekologikoa egiteari, Urduñako ganaduzale ekologikoen eskakizun baten ondorioz. «Nirekin harremanetan jarri ziren, beraientzat pentsutarako zereala eta lekari ekologikoak ekoiztiko zituen norbait behar zutela eta. Froga modura, sei hektarea ekologikoan jartzea erabaki nuen. Ezer gutxi nekien eredu horri buruz orduan. Baserritarak bisitatuz (baserritar ekologikoak, bereziki eredu konbentzionaletik datozenak dira irakasle onenak) eta ikastaroak eginez ikasten hasi nintzen».

Baserrria pasio duela dio Alfredok, eta maneiu ekologikoa egiten konturatu da

Zaraineneia etxaldeko nekazari-abeltzain ekologikoak

are gehiago gustatzen zaiola. Bere ekoizpenaren eraldatze prozesuan, gurasoek etxean mantendu izan duten jarduera aniztasunak asko lagundu diola azpimarratzen du. «Zentzu horretan, gurasoak erromantiko batzuk dira. Zereala erruz ekoizteari ekin ziotenean ere, mantendu izan zituzten esnerako bizpahiru behi eta txerri batzuk, baita salmenta zuzena ere. Hemen, gutxik egin dute hori, zereala soilik ekoizteari ekin zioten eta ortua, frutadiak... utzi zituzten. Ni monolaborantzaren eredu horretatik nator. Horregatik, edo, ekoizpen ekologikoan ez nuen batere sinesten. Uste nuen arazoak izango nituela belarrarekin, ekoizpenik ez nuela aterako. Baina ikusi dut belarra ez dela horrenbesteko arazoa. Ohartu naiz eredu konbentzionalen egiten duzun guztia naturaren aurka doala. Ekoizpen ekologikoa,

ordea, naturarekin egiten den joko bat da: naturak nola funtzionatzen duen ulertu behar duzu, eta horren arabera jokatu. Lehen ikusten ez nituen gauzak ikusten ditut orain».

Gustura ikusten zaio egindako aldaketa-ekin eta, horren ondorioz, bere ustiategi guztia ekologikora pasatzeko bidean da. Behin betiko aldaketa egiteko erabakia zerk oztokatzen duen galdetzean, oraindik ere eredu ekologikoaren inguruan duten ezjakintasuna argudiatzen du. «Epe ertainean, azalera guztia ekologikoan landuko dugu. Guretzat funtzionatzeko modu berria da, ez dugu kontrolatzen ekoizteko modu hau, txandakatzeak antolatze orduan, belarra kontrolatzeko tresneria... mundu berri bat ezagutzen ari gara. Gure ganaduantzat zereala eta bazka ekoizten dugu, eta bazka ekologikoki ekoizteko,

beste makineria bat behar da, guk ezagutzen ez genuena. Ongarriketarako, guk geuk konpostatutako 20 tona simaur botatzen ditugu hektarea bakoitzean. Gutxi-ka frogak egiten goaz. Epe laburrean, baserriak lau pertsonentzako lana emango du: esne freskoa eta esnearen eraldatuak egiten hasiko gara», kontatu du.

Egun, 100 hektarea pasatxo lantzen dituzte ekologikoan Alfredok eta bere lankide Patxik. Lur azalera hori guztia behar dute beraien aziendaren elikadurarako zereala, lekariak eta bazka lortzeko, kontsumoko patata ekologikoa ekoizteko, baita animaliak larratzeko ere. Zaraineneia baserriko azienda joan den uztailetik dago ENEEK-n inskribatuta eta, horrenbestez, ziurtapen ekologikoa lortzeko bidean (inskrribapen berri guztiek pasa beharreko egokitzapen epea igaro beharko da «eko-



Alfredo Alonsok eta bere familiak urteak daramatzate nekazaritzan eta abeltzantzan. Duela bost urte ekin zion ekoizpen ekologikoari.
Haritz MAYORA

logiko" izendapena erabili ahal izateko; kasu honetan, larreak dagoeneko eredu ekologikoan daudenez, ganaduaren egokitzapen epea urtebetekoa izango da). 40 behi ama eta hauen txahalek (limousinak, pirenaikoak eta fleckvieh), 12 behor eta hauen zaldikoek eta 80 ardik (ardi merinoaren mestizoak) osatzen dute. Kontuan izateko moduko azienda da, batik bat Billanbrosa 750 metrora dagoela aintzat hartuta: urritik apirilera arte, abereek apenas belarrik badaukaten larreetan. Horrek esan nahi du abeltzainek negua igarotzeko lain bazka eta pentsu izan behar dutela eskura. Zarainenean, beraiek ekoizten dituzte negurako behar dituzten 100 tona inguru pentsu (baba txiki, ilar, olo, garagar, txirta eta ieroen nahasketa) eta 150 tona belar ondu. «Aurtengo uzta pentsatu baino txikiagoa izan da eta horrenbestez ez dakigu Bizkaiko ganaduzale batzuekin geneukan tratua betetzerik izango dugun, baina gure azienda elikatze, behintzat, helduko zaigula uste dugu. Ez dugu erosteko beharrik izango».

Ekoizpen ekologikoa konbentzionalarekin alderatzean, errendimendua txikitzen dela izaten da kontrako argudio erabiliena. Erriberagoitiko nekazari hauek ikusi dute,

hain zuzen, hori gertatzen dela, baina beste irakurketarik ere egiten dute: «kilotan gutxiago ateratzen dugu, baina ekonomikoki errendimendua hobea da. Gastu gutxiago daude. Aurten, gainera, urtea lehorreretik joan da eta, eskualde honetan behintzat, zerealaren errendimenduak hobeak izan dira ekologikoan konbentzionallean baino. Konbentzionallean, normalean, 5.500 kg atera behar dira ondo ibiltzeko (4.500 kg atera behar dira hektareako, tratamenduen gastua estaltzeko bakarrik), baina aurten 4.000 kilora ere ez dira iritsi. Nik, ekologikoan, 3.200 kg atera ditut, esperotakoa baino zertxobait gutxiago da, baina ez dut gasturik izan tratamenduetan. Datorren urtean bioongarriekin frogatzen dugu; esperantza dugu errendimenduak zertxobait emendatzeko lagunduko dutela».

GIZARTE HARREMANAK INDARTU ELIKADURA BURUJABETZA ERAIKITZEKO

Herrien elikadura burujabetza eskubidearen aldarrikapena da Zarainenearen planteamendua indartzen duen beste pizuzko arrazoia. Alderdi asko dauzkan kontzeptua da elikadura burujabetza, ekoizpen eredutik hasi eta jendarte ere-

duraino jorratu beharrekoa. Alfredok azpimarratzen du ekologikoan ekoizten hasi zirenetik puzzlearen piezek berez bat egin dutela: ekoizpenean autonomia izateko, eredu agroekologikoa da aukera bakarra; horrek, aldi berean, salmenta zuzena eta, ondorioz, gizarte harremanen sortzea eta sakontzea eskatzen du. Harreman sendoak sortzeari garrantzi handia ematen diote Zarainenean; «banaketa egin aurretik, bi egun ematen ditugu 6 edo 7 orduz deiak egiten. Gero, etxez etxe banatzen dugu, hori asko eskertzen dute bezeroek, batez ere gasteiztarrek. Ez daukagu web orririk, ezta nahi ere».

Erabat konbentzituta dio Alfredok lokailu baten beharra sentitzen duela; «zuzeneko harreman batek elkartu behar gaitu bezeroa eta biok. Nahiago dut lagun edo ezagun baten bitartez topatzea bezeroa. Frogatzera ematen diezu, eta hortik aurrera engantxatu egiten dira». Hilero, 280 kiloko zaldiko bat eta 250-400 kg bitarteko 2 txahal hiltzen dituzte (zaldikoek 17 hilabete behar dituzte pisu horretara heltzeko, eta txahalek 16 hilabete). Txahal bakoitzetik, 5 kiloko 50-60 pakete ateratzen dira, eta zaldiko bakoitzetik 45 pakete.

Kontzientzia mailan, kontsumitzaileak baserritarren aurretik doazela pentsatzen dute nekazari hauek, eta batzuen zein besteen artean kontzientziazio lan handia egiteko beharra dagoela adierazten dute. «Gure aldetik, banaketan gabiltzanean beti aprobetxatzen dugu diskurtsoa egiteko, baserrira bisitan etortzeko gonbidatzen ditugu... Martxoan inguruan, topaketak antolatzen ditugu gure bezeroentzat. 200 lagun elkartu izan gara! Gelsaltzako "Madera y Sal" landetxean ere elikadura burujabetzaren aldeko elkarlana lantzen gabilta. Beraiek elikadura burujabetza, ekoizpen ekologikoa eta agroekologia zer den azaltzen diete bezeroei, eta gure baserritik pasatzeko aukera eskaintzen diete. Aldi berean, landetxean elikagai ekologikoak eskaintzen dituzte. Jendeari zer jaten duten pentsaraztea nahi dugu, eta janariaren atzetik zer dagoen erakutsi. Gure ikuspuntu berdina ez dute izango, baina behintzat beste planteamendu batzuek hausnartu dezaten lagunduko du», iritzi dio.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Eskola ekonomiaren itzalean handitzen hasi zenekoa

Umeak eskolara eta handiak lanera». Hori izan daiteke, akaso, jendartearen antolakuntza ekonomikoaz haurrei ematen diegun lehen nozioa.

Gaur egun hain banaketa arrunta dena horrela izan ote da, ordea, beti?

Historiaren ikuspegi luze-zabala hartuko bagenu, baina, ikusiko genuke nahiko berria dela haur guztiak eskolatuak izatearen ideia hori. Are gehiago, eskolatzearen orokortze horrek zerikusi zuzena izan zuen industrializazioarekin.

Industrializazioaren aurretik, ekonomia batik bat nekazaritzan oinarritzen zenean, eskola sozialki goi mailan kokatuak zeudenentzat izaten zen. Gainerako herritarren funtzioa nagusiki jauntxoaren lurretan lan egitea zenez, ez zegoen inolako kezkarik jendearen hezkuntzaren gainean.

AEBetan esklabutzan oinarrituta zegoen ekonomia eta European feudalismoan. Industrializazioaren iraultza gertatu zenean, ordea, botere ekonomikoak ohartu ziren errentagarriagoa zela jendea soroetan eta lurretan lanean edukitzea baino lantegietan edukitzea. Eta horrela, ordena sozial berri bat sortu zen, non esklabutza desagertu zen eta jendea, lurak utzita, lantegien itzalean handituz zihoazen hirietan pilatzen joan zen.

Lantegietako langile berri horien lanari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eta lantegiak garatzeko inguruan behar zuten azpiegitura askotariko langileez hornitzeko prestakuntza ezinbesteko bihurtu zen. Langileak idazten, irakurtzen eta zenbakiekin moldatzen jakitea beharrezko bilakatu zen. Hala, langileen seme-alabentzako eskolak sortzen hasi ziren; batez ere industrian oinarritutako antolaketa ekonomiko haren aurrera egin zezan.

Industria kualifikatzen eta teknifikatzen joan den heinean, hezkuntza premiak handiagoak eta askotarikoak izan dira. Era berean, hezkuntza antolaketa ere garatzen eta zabaltzen joan da: lan mundura sartu den emakumearen se-

me-alabak zaintzeko haur eskoletatik hasi eta jendarte eredu berria hornitzeko beharrezkoak ziren teknikari, ikerlari, ekonomialari eta abarren prestakuntzara arte.

Batik bat XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean gertatu zen aldaketa azkar, sakon eta bortitz hari aurrerapena deitu zitzaion. Neurri handi batean jarraipena du gaur, lantegiak eta industriak teknologiaren eta informazioaren ekonomian eraldatu badira ere, eta horri, terminoak ere garaietara egokituz, gaur egun hazkundea deituko zaio. Eta hezkuntzak horri guztiari egokitzea beste erremediorik ez du izan.

Munduan nagusitu den eredu neoliberalari erantzuteko modua izan daiteke eskolan protagonismoa hartu duten zientzien, teknologien eta munduko hizkuntza handien ikasketen sustapena humanitateen eta pentsamenduarekin eta filosofiarekin zerikusia duten beste diziplinen aurrean.

Ondorioz, duela hamarkada batzuk analfabetismoaren marra ipintzeko

neurgailua irakurtzen eta idazten jakitea bazen, muga hori aurki teknologia berriek ipiniko dute. Beraz, datozen belaunaldietako analfabeto berriak horietatik izango dira: teknologia berriak deiturikoak menderatzen ez dituztenak.

Hezkuntza funtsezko giza eskubidea da, eta pertsonon eta jendartearen garapenerako tresna erabakigarria. Non ipini beharko luke azpimarra hezkuntzak, hortaz? Frei Betto brasildarra fraide, hezitzaile eta pentsalaria da eta Lularen gobernuko hezkuntza aholkulari izandakoa. Besteen artean, UNESCOko Jose Marti saria jaso zuen 2013an. Hari entzun genion esaten etxeko atarian zegoen eskolako autobus geltokian goizero ikusten zituela haurrak eskolara joaten. Autobuseko leihotik haien buruak besterik ez ziren ageri. «Zergatik ez ote dituzte buruak soilik eramaten eskolara? –pentsatzen omen zuen bere artean– eskolari ez baldin bazaizkio haien gorputzak eta bihotzak interesatzen?». •



Ziburuko Kaskatorenea ikastolako irudia .

Bob EDME

{ koaderno } **Garazi Goia**

Ironia, eta emakumea galtzen

Atentzioa ematen didate egoera ironikoek eta azaleko kontraesanek. Japoniari buruzko hausnarketa bat egingo dut gaurkoan. Kultura eta eguneroko bizitzako hainbat bereizgarri urrutiko eta ezberdin bihurtzen dute; beste guztiaz bestelako bilakatzen duten hainbeste ezaugarri ditu, alegiazko etorkizun baten antzekoa. Kontrasteak erakartzen du hainbat jende. Ni neu ere bai. Munduko lurralde aurreratuenetako bat da, garapen teknologiko eta ekonomikoei dagokienez behintzat, eta gauzak hobetzeko duten grina benetan aipatzekoa da. Askotan, badirudi beraien agenda propioa dutela; beraiek bakarrik, beste inori laguntzarik eskatu gabe, aurrera egin nahi dutela ematen du. Testuinguru horretan ironikoa dena gizartean emakumeak izan duen rola izan da. Historikoki, tradizioetan iltzatuta dauden familien artean sortzen diren hierarkiak gailendu dira, beti aita edo gizonezko bat buru dutela. Emakumearen papera haurren zaintzara mugatuta zegoen edo beste la familien artean loturak sortzeko erabiltzen zituzten, beste familia edo tribuetako jendearekin ezkonduz. Erabili hitzaren aukeraketa apropos egindakoa izan da.

Gaur egun ere neurri handi batean antzeko jarrera eta dinamikak nabarmentzen dira gizartean eta oraindik ere gizonezkoen menpe daude hainbeste esparru. Bertako marko politikoak ere ez du laguntzen; agintean dagoen alderdi kontserbadorea Bigarren Mundu Gerratik egon da boterean, eta oraindik ere politika atzerakoian oinarritzea dira hainbat erabaki eta lege. Laurogeigarren hamarkadan egin ziren mugimendu feministen saioak ere, gehienak beren horretan gelditu ziren eta oinarritzko eskubideak babestea baino ez dute lortu.

Amélie Nothomb idazleak "Stupeur et Tremblements" izenburuko eta autobiografia itxurako liburu batean eman zituen argitara Japonian emakumeak lan ingurune batean jasotzen dituen apalkuntza eta laidoak. Amélie protagonistak Yumimoto izeneko enpresan izandako lan esperientzia du kontagai liburuan, eta erreferentzia egin diedan muturreko hierarkizazioaren adierazle dira berari gertatzen zaizkion hainbat gorabehera. Kontabili-

tate lan batean hasi, handik fotokopiagailuaren kargu egitera bidaltzen dute eta azkenean komunak garbitzera. Arauak desafiatzeagatik. Berdintasuna adierazi nahiagatik. Emakumea izateagatik.

Emakumea izateaz gain, mendebaldekoa izateak ere ez dio laguntzen liburuko protagonistari eta gure gizartean zorionez normalizazio baten adierazgarri diren jarrerak ere kolokan jartzen dira; adibidez, iniziatiba hartzea eta erabakiak proposatzea; edozein langileren iritzia aintzat hartzea. Eta Japoniako gizarteko beste hainbat balio ere zalantzan jartzen dira liburuan. Emakumeen zorientasuna, adibidez. Horren isla Amélieren lankide baten deskribapena da: neska ederra da eta lanpostu ona dauka, baina mingostuta bizi da; oraindik ezkondu gabe egoteagatik lotsatuta bizi da eta bere ingurukoekin harremanak mugatzen dizkio. Izan ere,

Japonian historikoki, tradizioetan iltzatuta dauden familien artean sortzen diren hierarkiak gailendu dira, beti aita edo gizonezko bat buru dutela

emakumeak hogeita bost urteren inguruan ezkontzea "arau" bat da eta betetzen ez duena ez da "zorientsu".

Edozeini surrealista iruditzen zaizkion eszenak kontatzen dira liburuan, askotan komikoak ere badirenak. Baina hori da hain zuzen ironia, errealtateaz ari dela.

Japonian zerrenda ofizialetan erregistratuta dauden enpresetan, %2 baino gutxiago dira exekutibo postuetan dauden emakumeak. Konparaketa gisa Europan emakumeen %15 dira. Beste datu esanguratsu bat: Japonian haurrak dituzten emakumeen heren batek baino ez du lan egiten; Ingalaterran, AEBetan eta Alemanian, adibidez, %60ak eta Suedian %75ak. Duela urtebete Japoniako lehen ministroak eskaera bat egin zien enpresei, gutxienez emakume bat edukitzeko postu exekutiboetan. Emakume bat. Lehenengo pauso positibo bat dela pentsatzea beste erremediorik ez zaigu gelditzen. •


Nafarroako ikastolen lehendakari denetik euskal hezkuntzari bere lekua eta izaera ematen dihardu Pello Irujok. Eraso politikoen gainetik gure seme-alaben hezkuntza blindatu behar dela dio, eta honekin batera «ikastolen kideen arteko batasuna» oinarri-oinarrizkoak direla adierazi du «azterketa» gisara hartzen duen Nafarroa Oinezen bezperetan.

Hamar hilabete daramatzazu karguan, zein gogoz, zein asmoz hartu zenuen NIEko lehendakari izateko erronka?
Argi neukan aurrekoek egin dako lana eta jarritako inplikazioa oinarri-oinarrizkoak zirela. Gainera, ilusioz, baina karguak exijitzen duen erantzukizunez hartu nuen. Hortik abiatuta niretzat jomuga gure txikiak dira, ikastoletan ikasten ari diren eta ikasiko duten gure seme-alabak. Etorkizunera begirako espirituarekin sartu nintzen, betiere dagoenaren eta egin denaren esentzia galdu behar ez delarik. 'Ikastola' marka zein den argi daukat.

Zein da gaur egun NIEk bizi duen egoera?
Zenbaki hutsetan hitz eginda, Nafarroan 15 ikastola gara, 6.500 ikasletik gora, 610 profesional, eta, familiak 4.500 dira. 10.000 ikasle ohi dagoela esan dezakegu, faktoria bagina, beste horrenbeste euskaldun produzitu edo ekoitzi egin ditugu, Nafarroan, gizar-tean, Euskal Herrian. Esan nahi dudana da 10.000 euskaldun atera direla ikastoletatik, gure ibilbidean zehar. Hori datuei dagokienez. Egunez egun dauzkagun eginbeharrei begiratuta, ikastolen arteko harremanak sustatzea eta kudeatzea tokatzen zaigu. 15 ikastola dira, eta bakoitzak egoera propioa bizi du. Horregatik etorkizunera begira erronka polita daukagu, ikastolen etorkizuna gidatuko duen proiektua osatzen.

«Etorkizunera begirako espirituarekin sartu nintzen, betiere dagoenaren eta egin denaren esentzia galdu behar ez delarik. 'Ikastola' marka zein den argi daukat»

«Nafarroa oso desberdina da eta, beraz, ikastola bakoitzaren egoera desberdina da. Kokapenak gauzak markatu egiten ditu, bai sozialki, baita kulturalki ere»



Denbora honetan zein pauso eman dituzue?
Lehenik eta behin barne komunikazioa lantzeraz eta hobetzera ekin genion. Batez ere gainontzeko ikastolen elkarteekin. 2009tik, arrazoi desberdinengatik, NIE eta EHIren arteko harremana ez zen guztiz sana, eta hori hobetzeko asmoa genuen. Bestetik gure elkartearen barnean ere, oinarri komunikatiboa zuen arazo bat zegoen, gurasoen eta profesionalen artekoa. Bi kolektiboen artean haustura nabaria zen eta hori konpontzea ezinbestekoa genuen. Honetaz gain langileen hitzarmena zahar berritu beharra zegoen. Hiru horiek arazo nahiko zaharrak ziren

eta hilabete hauetan konponduz joan gara. Gauzak horrela, NIE eta EHI harremanak sendotu ditugu, eta langileen sindikatuekin harremanak sendotu ditugu eta behintzat orain *feedbacka* badaukagu. Gainera, urteak generamatzen ikastolek, gainontzeko zentro kontzertatuen antzera, dedukzioak lortu nahian, hau da, gure gurasoek PFEZa egiteko garaian dedukzioak edukitzea. Hauek, azken finean, kooperatibistak dira, eta diren heinean, euren eskubidea da horiek lortzea.

Eta, hezkuntzari dagokionez?
Hezkuntza arloan bi ardatz berritzailetan gabiltza murgilduta.



«Euskal hezkuntzari izaera politikoa eman nahi diote, gu gure seme-alaben etorkizunaz ari garen bitartean»

menak kalitatezkoak dira gehienak. Eta azken ikurra historikoa da, euskal hezkuntza, asmatu genuen, eta presio hori daukagu, ezin gara ataskatu, baina ezta ahaztu ere. Herri honetan hasi zen eta ezin dugu herria alde batera utzi. Gure seme-alabek etorkizuneko Nafarroa egingo dute, hobe bat, baloreetan oinarrituta eta sozialagoa.

Kanpora begira, zein da Nafarroako ikastolen egoera?

Hiru administrazioetan (Nafarroa, EAE eta Iparralde) dagoen eskola eredu bakarra da ikastolena. Curriculum eta material bera lantzen dugu, eta horrek indartzen gaitu. Hiru administrazioetan egonda oso desberdina da egoera. Baina ez nuke desberdintasun nabarmenik egin nahi. Bakoitzak gurea baitaukagu. Ezberdintasunak legalak eta ekonomikoak dira batez ere, eta hor administrazioen jarrerak zerkusua dauka; ezin da EAEkoen egoera Iparraldekoekin edo gurearekin konparatu. Dena den, aurrean estatu mailan lehen aldiz, Nafarroa ikastola batek ordezkatzeko du estatu mailako Kalitate Kongresuan.

Ikasturte hasiera honetan LOMCE izan da hizketagaietako bat, zein iritzi duzu?

Onartezina eta atzerakoia da. Eta sei ardatzetan oinarritzen naiz hori esateko: Lehen, kontsentsu faltarekin egina. Hezkuntza lege batek transbertsala izan behar du. Norabide guztietan osatua. Hitz egin behar da. Hezkuntza ez da lau urtetako kontua, bizi osorako kontua da. Garaietara moldatu behar da hezkuntza eta ez du alderdien lege bat izan behar. Hezkuntzarako lege aldaketak klase guztietara hedatzen dira, eta hori zorakeri hutsa da, gure seme-alabez hitz egiten ari gara. Bigarrena, hezkuntzarekin kontuz ibili behar da, hezkuntzak blindatuta egon behar luke. Alderdien lana hori da. Ezin da kanpaina politikorik onartu hezkuntzan. Hirugarrenez, eta edukiei dagokienez ere, edukiak ez dira onargarriak. Talde lana, teknologia,

kin, material didaktikoa eta ikastaro ofizial bat hitzartu ditugu. Ikastaroak unibertsitateko ikasleei, prestakuntza osagarria eskaintzeaz gain, kredituak lortzea ahalbidetuko die. Hauetaz gain, nola ez, ezin dugu Nafarroa Oinez ahaztu.

Zein da, oro har, ikastolen egoera?

Nafarroa oso desberdina da eta, beraz, ikastola bakoitzaren egoera desberdina da. Kokapenak gauzak markatu egiten ditu, bai sozialki, baita kulturalki ere. Euskararentzako eta euskaldun izateko, tamalez, oso leku desberdinak dira, eta ez da berdina Lesakan edo Tuteran. Gure ikastoletan indar berdina jartzen dugu, eta metodo pedagogiko parekoak garatzen saiatzen gara. Gure curriculum propioa daukagu, eta legea betetzen dugu, nahiz eta legea ez den gure ardatza. Ekonomikoki eskola batzuk itoago daude, zenbait gasturi aurre egin behar dietelako, baita inbertsio gutxiago dutelako ere. Honek Vascuence-aren Legeak baldintzatzen du. Horregatik Oinezen %45 hegoalde partean kokatzen dira. Ez da kasualitatea ere, 15etik 6 ikastola eremu ez euskalduna delakoan egotea, izan ere hor behar da gehiago euskalduntzea. Legearen arabera ere desberdinak dira ikastola horiek. Hor dator gure eguneroko lana eta aldarria. Guk argi daukaguna da ikastola gure seme-alabak direla, ikasleak, eta guztia haiei begira egin behar dugula.

Hori al da ikastolen bandera?

Lehenengoa behintzat bai; hemen gaude gure seme-alabentzako. Baita eleaniztasuna eta baloreak ere. Hori da gure oinarria, hezkuntzarekin batera. Bigarrenik, baina maila berean, hizkuntza dago. Euskara eta euskal kultura. Gero, kooperatibismoa. Hizkuntza eta kultura kooperatibak gara. Gure eredu soziala da. Hamabost ikastolen artean, 100 aktibitate baino gehiago ditugu, 100 ekimen. Esan nahi dut eskola bakoitzak 4-5 egun dituela bere herrian edo eskualdean ospatzeko. Eki-



Argazkiak: Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

Bata etorkizuneko proiektua da eta bestea jada martxan dagoena. Etorkizunera begira NAIA proiektua abiatu dugu. 15 ikastolekin lan egingo dugu, eta jada gehiengoarekin bildu gara. Pedagogian, erlazionalean, kudeaketan, ekonomian eta aholkularitzan oinarritutako proiektua da. Momentuz ezin dut askoz gehiago esan, baina ikastolak izan direna eta izango direna zehaztuko du. Daukagun onena eta eman dezakegun onena aterako duena. Federazioaren argia izango da, aurrera pausoa eta iparrorratza. Beste proiektua Nabarralderekin lortutako akordioa da. Nafar ondarea eta historia lantzen dituen elkarte hone-

PELLO
IRUJO

NAFARROAKO IKASTOLEN
ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Orain hamar bat hilabete hartu zuen Nafarroako Ikastolen Elkarteko (NIE) lehendakaritza. San Fermin Ikastolan ikasia, hortik datorkio ikastolen proiektuarekiko duen «mirespen eta sinesmena».

Josu GANUZA

«Hezkuntza ez da lau urtetako kontua, bizi osorako kontua da. Garaietara moldatu behar da hezkuntza eta ez du alderdien lege bat izan behar»

«Guretzat sorpresa handia izan zen 22 liburu horiek debekatzea. Ez da bidea, esan bezala, hezkuntzak blindatua egon beharko luke eraso politikoetatik»



globaltasuna... ezin dira landu. Konpetentzia horiek ezin dira landu, edukiak soilik onartzen ditu eta egun, haurrek konpetentziak behar dituzte. Laugarrenez, ikastolen izaera urratzen du. Euskara ez da ardatza, gure eredua ez da bateragarria. Bosgarren puntu bezala, kanpoko frogarik ez dugu onartzen. Kanpo frogak kontrolatzeko jarri dituzte, DBHn eta LHn. Ez dituzte ikasteko jarri, baizik eta kontrola emateko. Kontrol “de castigo” esaten dena. Kontrolak informazioa izan behar dute, ongi edo gaizki dagoena ikasteko. Eta azkenik, eskola porrota dauka helburu. Diskriminatu nahi du. Eta ez hezkuntza parekatu, edo eskura jarri.

Azken egunetan berriz Nafarroako Gobernuak liburu hainbat erretiratzeko hartutako erabakia dabil bolo-bolo.

Guretzat sorpresa handia izan zen 22 liburu horiek debekatzea.

Gure ustez ez da bidea. Ez dugu ulertzen. Esan bezala, hezkuntzak blindatua egon beharko luke eraso politikoetatik. Ez gaude ados gertatzen diren ekintzekin. Orain dela urte batzuk salaketa jarri eta galdu genuen. Bidea zaila da, zaila eta luzea. Gainera, indar handia eskatzen du. Harritzekoena da liburuen kontuan ez daudela soilik euskal argitaletxeak sartuta, baita beste batzuk ere, adibidez Santillana. Eta gure kezka da euskara politizatzen dabiltzala, euskal kultura eta euskal ondarea. Adibidez, mapen kontuarekin hori gertatzen da. Herri baten kultura adierazpena da, ezin dugu esan euskara Errumaniar hitz egiten zela, hitz egin zenik ez badakigu, ez? Oso berri tristeak dira, baina guk jarraituko dugu bidea egiten, tristura eta desadostasunaren gainetik.

Zein aldarerekin hartzen duzu aurtengo Nafarroa Oinez?

Nafarroa Oinez guretzat azterketa bat bezalakoa da. Urtero zerbait geratzen da prestatu gabe eta bukaerarako beti zer edo zer geratzen da, baina beti urte osoa eskaintzen diogu. Izan, esan, gozan. Urriaren 19an guztiek joan behar dugu Zangozara. Ikastolen festa eta euskararen alde egiten den jaialdi handiena da. 1.500 boluntario egongo dira lanean. Aldarrikapen lekua da Euskaren Legeari ez esateko, LOMCeri ez esateko, liburuen kontuari ez esateko. Ibilita eta lagunekin egonda, gure erantzuna positiboa da aurretik aipatutako oztopoei. Nafarroa guztiak ikusi behar du euskaren alde jende andana dagoela. Berri negatibo batzuk ahaztea une batzuez, eta erantzun potenteez erantzunda. Aurten Zangonzan, datorren urtean Baztanen, 2016an Lodosan eta Vianan eta 2017an Lesakan guztiok egon behar dugu.

Pertsonalki nola bizi duzu?

Lehendakari izanda beste modu batez biziko dut. Hemendik hara eramaten zaituzte. Lehengoa nahiago nuen, lagunekin eta familiarekin disfrutatzen nituenen. Orain beste perspektiba batez ikusten dut. Urtero pozik joan izan naiz, eta aurten ere bai, eguerditik aurrera libre izanen naizelako. Ilusioz hartzen ditut oinezak eta hori ez da aldatuko. Nik euskara ikastolan ikasi nuen, pentsa zer den hori Caracasetik etorritako ume barentzat. 81. urtean Altsasun bizi izan nuen lehenengoa, jendetza gogoratzen dut ordutik. Horregatik beti puntu erromantiko batekin ikusi izan dut. Erantzukizun kontua da Nafarroa Oinez, euskaren aldeko mugimendu potentea lortzeko. Eta lehendakari moduan, ikastolen mugimendua aldarrikatzea ahalbide-tzen dit: hezkuntza soziala eta auzolana.

FEMINISMOAREN AZTARNA

Emakumeen borroka Basaurin itsatsita dago

📁 JENDARTEA / Nerea GOTI

Marienea Basauriko emakumeen etxeko hormak pegatez beteta daude. Emakumeen borroka eranskailuetan utzi duen aztarna jasotzen du bilduma batek. Memoria freskatzeko ariketa ederra da, baita belaunaldi berrientzako ere, duela ez asko dibortzioa ilegala zela edota, «pratika abortiboak» egotzita, emakumeak epaituak zirela egiaztatzeko.

Berdintasuna ez da helmuga, ibilbidea baizik». Horrela dio Basauriko Marienearen hormetan ez itsatsita, eskegita dagoen pegatina batek. Ondoan, beste mila pegatina inguru daude ikusgai, panel ezberdinetan. Erakusketak “Emakumeen borroka pegatinetan zehar” du izena eta Marienean jarraituko du ikusgai hilaren 31ra arte. «Ni obedecer, ni servir, ni callar. Egin dezagun iraultza feminista» irakur daiteke Bilboko Koordinadora Feministak sinatzen duen aspaldiko pegatina batean. «Ezetx diogunean, ez da» dio beste batek, «Ez isildu, ez izan konplizea», edota «Represaliada como todos, torturada como mujer» irakur daiteke beste batean. Berrogei urtetan emakumeen borroka sortutako hamaika lelo eta mezueta batzuk dira horiek.

Aldatu da estetika, eta kalitate grafikoa nabarmen hobetu da, baina bitxia da konprobatzea gai gehienek ez dutela indarrik galdu, edo beste era batean esanda: duela 40 urte botatako mezu batzuek gure egunekoak izaten jarraitzen dutela. Ikustea besterik ez dago, indarkeria sexista, abortua, erantzukidetasuna, sexu askatasuna... bezalako kontuen inguruan sortutako hausnarketak. Historiak pegatina formatua du kasu honetan, eta begi aurrean jartzen dizkigu lorpenak eta lortu beharrekoak.

Iñaki Sanchez (Santurtzi, 1966) da bildumaren egilea. Etxean gai ezberdinetako 30.000 pegatina inguru gordetzen du Pititako irrati san-

turtziarraren elastikoa jantzita daraman santurtziarrak. 14 urte zituenetik elikatu duen zaletasunak hartu duen tamainaren aurrean, toki bereziren bat aurkitu beharko duela onartzen du, baina ez da erreza, baldintza zehatz batzuk behar baititu kontserbazioa bermatzeko.

«Bikotekidearekin bizitzen joan nintzenean, amak zera esan zion neskalgunari: altxor bat eta pegatina bilduma bat daramatzazu», kontatzen du barreen artean.

Zaletasunak ezizen bat eman dio: Iñaki «Pegatas». Argitzen duenez, ez da inguru hurbilenekoek erabiltzen duten ezizena, baina hemendik eta handik jasotako pegatak Pititako Irratira heltzen ziren bakoitzean (eta asko izan dira), Iñaki-Pegatas jartzen zuen gutun-azalean. Horrela irabazi zuen abizen berria, eta horrela ezagutzen dute herri mugimendu, sindikatu eta alderdi politiko askotan.

Basaurin erakusten duena bilduma erraldoi horren zati bat baino ez da, eta onartzen du zati hori kutunetako bat duela. Argitzen duenez, emakumeen bo-

roken gertu sentitu da gaztetik. Sentsibiltate hori betidanik izan du eta ez da erraza izan rolak apurtzen gaztetik saiatu den bera bezalako mutil batentzat. «Bikotekidearekin bizitzen joan nintzenean etxeko lanak banatu genituen folio batean idatzita, gauza normal bat iruditu zitzaigun bioi, naturaltasunez egin genuen», azaltzen du.

Horren ondoan kokatzen du bere inguruan bizitakoa: Ezker aldean, industria giroko beste udalerrri batzuetan bezalaxe, borroka feministak presentzia handia izan duela herri mugimenduen ahotan, eta zenbait sindikatu eta alderdi politikoren mezueta. «Egizanen lana eza-gutu genuen Santurtzin», nabarmetzen du.

Eta ez da hurbiltasun horretan geratu. Santurtziko Gizon Ekimena taldeko partaidea da Sanchez. Gogoratzen duenez, hilketa matxista baten ostean sortu zen ekimen hau, berdintasunaren alde eta sexismoaren kontrako borrokan hausnarketa egiteko. Bide horretan jarraitzen dute, besteak beste, Marimatra-

ka herriko emakume taldearekin harremanetan.

AIZAN ETA EGIZAN

Pasilloetara itzulita, Elbira Zipitria eta Polixene Trabuduaren emakume iraultzaileen irudien artean dago erakusketaren zati bat, Sexu Informazio Bulegoaren ondoan. Basauriko emakumeen eta mugimendu feministaren gunea den Marienean zentzu berezi bat hartzen du erakusketak.

Euskal Herriko talde feministen pegatinekin osatzen dute erakusketaren atal bat. Aizan eta Egizan mugimenduek 1988tik 2001era zabalduetako lanak dau- de hor; Euskal Herriko Bilgune Feministak bere toki propioa ere badu, eta Bizkaiko Emakumeen Asanbleak, edota LKIr lotutako Emakume Askapen Mugimenduak. Arestian aipatutako taldeak sinatu duen pegatina bat seinalatzen du Sanchezek. «No hay liberación de la mujer sin revolución, ni revolución sin liberación de la mujer» dio.

Gogoratzen duenez, erakunde batzuek urtero pegatina bat editatzen dute tematika honekin,

Iñaki Sanchez, «Pegatas» goitizenarekin ezaguna ere badena, bere erakusketak agertzen Basauriko Marienean. Marisol RAMÍREZ | ARGAZKI PRESS





Euskal Herriko talde feministen pegatinekin osatzen dute erakusketaren atal kutunetako bat, eta horri egin diote lekua Basauriko emakume etxean.
Marisol RAMÍREZ | ARGAZKI PRESS



CGTren kasuan, gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz argitaratzen dituela azaldu digu. «Si nos tocan a una nos tocan a todas» dio hitz larrietan, sindikatu honek sinatutako lan batek.

Emakumeen aldarrikapenekin lotutako alderdi politiko, sindikatu eta gazte erakundeen lanak bildu ditu. Mujeres libertarias y de CNT sinadura ikusten dugu horietako zenbaitetan,

Estatuko lan batzuk ere badaude. Galiza, Catalunya, Gaztela, Andaluzia, Asturias eta Aragoikoak, besteak beste. Eta hurrunagora joanda, Chiapasekoak edota emakume iraniarren aldekoak aurki daitezke.

Íñaki Sanchezek kontatzen digunez, batzuetan gorriak ikusten ditu egileak identifikatzeko. Asko

ez daude sinatuta, beste asko oso ezagunak ez diren siglekin heltzen zaizkio eta horrek dokumentazio lan handia eskatzen du.

Sexismoaren aurkako eta berdintasunaren aldeko gizonen buruzko pegatak ere bildu ditu beste atal batean. «Ayudas o compartes» planteatzen du horietako batek.

ZAHARREN XARMA

Lan zaharrenak 70. hamarkada-koak dira. Erraz bereizten dira, koloreen inpresioa eta duten estetikatik. Horien artean, Dolores Ibarruriren argazkia duen batek arreata deitu digu urrunetik. PCEk sinatzen duen zuri-beltzeko erretrau hura Gallartan egin dako omenaldi batean argitaratu zutela azaldu du Sanchezek.

«Bikotekidearekin bizitzen joan nintzenean, amak zera esan zion neskalagunari: altxor bat eta pegatina bilduma bat daramatzazu», kontatzen du barreen artean

Gorriak ikusten ditu egileak identifikatzeko. Asko ez daude sinatuta, beste asko oso ezagunak ez diren siglekin heltzen zaizkio eta horrek dokumentazio lan handia eskatzen du

Lan batzuen adina gai berak islatzen du, dibortzioaren aldekoak kasu. «Anticonceptivos libres y gratis para no abortar y aborto libre para no morir» irakur daiteke urteak dituztenen arteko batean, eta oso gertu, «Amnistia para las mujeres procesadas por abortar» leloa nabarmentzen du zuri-beltzean dagoen beste batek. 70. hamarkadaren erdian praktika abortiboak egiteagatik Basaurin bertan atxilotuak izan ziren 11 emakumeren kasua gogorarazten du.

MUTURREKO ESKUINEKOAK

Panel batetik bestera izualdi ederra har dezake bisitariak «El aborto es el terrorismo legalizado» edota 90. hamarkadako «Esto no es un aborto» esaldiarekin umeki baten irudi handia azaltzen duena ikustean. Movimiento Católico Español-ek sinatzen du oso deigarria egiten den azken hau eta Santurtziko kaleetan agertu zela azaltzen du Sanchezek. Hauek bezalako leloak ikus daitezke emakumeen eskubideei buruzko pegatina kontserbadore eta sexistei eskainitako atal batean. Mugimendu horiek emakumeen borrokan harira ateratako mezuak dira, abortua edota dibortzioa bezalako gaiak direla eta.

Mezuek eta estetikak arreata deitzen dute. «Ez nazazu hil» esaten du abortuari buruz Iruñeko Bizitzaren Aldeko Komite batek zabaldutako ale batek; «Quien a aborto mata a eutanasia muere» irakur daiteke ondoko batean.

Sanchezek kontatzen duenaren arabera, balio berezia dute lortzeko oso zailak direlako. Editatzen dutenek ere badakite jakin-min handia sortzen dutela, eta batzuetan dirua eskatzen dute pegatinaren truke.

Komentatzen duenez, talde horiek ez dute egoitzarik Euskal Herrian, eta mezu horiek gutxitan ikusten dira gure kaleetan. Pegatina horiek lortzeko bere lanbideaz baliatu da. Sanchezek trenbidean egiten du lan, eta Valladolidera edota Madrilera egindako bidaietan ideologia horietako lokaletan aurkitu ditu pegatina hauetako batzuk.

Azalpen honek beste gai bat jarri du mahai gainean: zelan demontre lortzen dituzte mota honetako pegatak. Aurretik azaldu digu bildumagileak koordinatuta daudela, elkarren artean trukatzeko dituztela lan batzuk. Bestalde, ezin dute manifestaziorik galdu. Euren artean banatzen dute nor zein mobilizaziora joan behar duen, eta noizean behin ho-

rietako batean geratzen dira trukea egiteko.

Mobilizazioez gain, jaiak eta batez ere txosnaguneak eta gazetxeak dira bildumagileen benetako pagotxak. Hor materiala aurkitzen dute beti.

Beste batzuetan, egoitza zehatz batera jotzen dute hau edo bestea lortzeko. Arazoa da ultrasikuineko egoitza batera jo behar dutenean. «Aurkeztu behar zara estetika zehatz batekin, susmorik ez altxatzeko», dio. «Batzuetan belarritakoa kendu eta egoki ikus dezaketen itxura batekin sartzen zara, bilatzen duzuna eskatu eta ahalik eta lasterrren alde egitea» da plana, kontatzen duenez. «Horrelako lokal batean atea zabaldu zidana uniforme zantzita agertu zen. Ez dakit zer uniforme zen, baina naziena iruditu zitzaidan; orduan eskatutakoa jaso nuen eta ziztu bizian irten nintzen», gogoratzen du oraindik hotzikara begietan islatuta. Eta ale berriak lortzeko ahaleginetan, Madrilan aurkeztu zen 20N batean, Ynestrillasen mitin batean. Aurten Santiagora egin zuen bidaia uztailearen 25ean, Galizaren egunean. 15Mko mugimendua eta, orain, Katalunia eranskailu sortzaile handiak dira.

«Formalismotik at, arau hauslea da egungo iruditegia»

Hilabete honetan bertan hitzordu garrantzitsu bat izan dute bildumagileek Villabonan. Bertan, 20 bat lagun biltzen dira eta bildutako azken pegatinak aztertzen dituzte. Elkarrekin errazagoa da batzuk kokatzea eta informazioa trukatzeko. Nabarmentzen duenez, mundu honetan internet izan da benetako iraultza, bai aleak lortzeko orduan, bai informazioa lortzekoan. Izan ere, dituen 30.000 pegatinekin batera hamaika dokumentu, idatzi, fanzin eta eskuorri gordetzen joan da, hain zuzen ere, beharrezko dokumentazioa egin ahal izateko. Orain, Lazkao beneditarren artxiboarekin kontaktuan dago horietako lan batzuk hara bideratzeko.

Orain Basaurin erakusten ditu emakumeen borroken pegatinak, hortik Ermura joango da eta handik Anoetara. Azaroaren 25a gertu dago, material iturri bat izango da pegata bildumagileentzat, eta emakumeen borroken historiaren beste orrialde bat, pegata formatuan bada ere.

Itziar Bastarrika Madinabeitia argazkilaria da, baita bideogintzan aritua ere. Irudiaren gaineko ikastaro dezente eskaintzen ditu; asteotan, baina, esperimentu berri batekin dabil Arrasateko Emakume Txokoan: Iruditegi, (merchandising) feminista berria sortzen. Ikastaroaren izenak eragin digun jakin-mina asetzeko asmoz oñatiarrarengana jo dugu.

Zein da ikastaroaren helburua?

Iruditegi feminista berria sortzea da helburua. Mod-modan dagoen Do it yourself korronea jarraitzea, azken finean. Oso talde polita osatu dugu 8 emakumek, oso animosoak denak, zer edo zer aterako da hortik. Tailerraren xedea da buruan izan dezakegun horri bidea eman, formatu bat eman, –murala, pegatinak, txapak ala auskalo– eta hura zabaldu eta barreiatzea.

Lokalizatzeaz ere aritzen zara.

Egiten dugun hori gure testuinguruan txertatu nahiko nuke. Bestelako erreferentziei muzin egin gabe, gureak aurkitu ala asmatu nahiko nituzke. Askotan ingelesezko leloak euskaratzen ditugu, baina, seguru ikerketa txiki bat eginda gure inguruan badaudela emakumeek esandako esaldi borobilak ere. Eta ez badaude, asma ditzakegu.

Asko aldatu da iruditegia?



ITZIAR MADINABEITIA

Iruditegi feministak sekulako garapena izan du azken 5 urteetan. Orokorrean denean eman da, formalismotik haratago doa, arau hauslea da. Denetarik dago, hala ere, tradizionalak oraindik badirau. Lehen ez ginen horren abilak guk geuk sortutako irudiak erabiltzeko, kamisetak, txapak... azken urteetan baina iraultza handia eman da. Uda honetan Ondarroako jaietan agertu diren pintadek, adibidez, zeresana piztu

dute. Pankartek ere aldea dute lehengoekin.

Sormenari lekua egiteak onurak ekarri ditu?

Bai, noski. Aberastu da eta gerturatu du. Sormen horri bidea egiteak, jendea gehiago erakartzeaz gainera, satisfazio handiagoa ematen dio egiten aritzen denari. Ni, adibidez, feminismora hurbildu nintzen, lelo asko urrun, eta nire garaiko aldarrikapenatarako leloak faltan sentitzen nituen. Sormenak hutsune bat bete du, eta, gainera, betegarriagoa egiten du esperientzia bera. oihana.llorente@gaur8.info

Mezulariak

Amaia Agirre

Whatsappak mundua mugitu dezakeela sinestea zaila gertatzen da, baina ingurua kaltetu dezakeela egia ukalezina da. Gero eta arriskutsuago eta kaltegarriago bihurtzen ari da jendea mintzea eta ingurua kakaztea baino zeregin hoberik ez dutenen eskuetan. Ustez karaktere batzuen bilduma baino ez den mezu batek minutu bakar batean desitxura dezake gure irudia. Lehen bide bazterreko kontrolei nien izua, baina gaur egun beldur handiagoa eragiten didate bide bazterrean utz zaitzaketen kontrolatzaileen asperdurak. Asperdurak idaztera daramatza. Sortzera eta asmatzera. Sekula idazle izango ez diren protagonista narratzaileak.

Baina zer gara waxapa gabe? Nor gara waxaparen jabe? Amorrua sentitzen dut etxetik mugikorrik gabe atera naizen egunetan umezurtz eta bakarrik sentitzeko arriskuan egon naizelako. Pena ematen dit taberna edo jate-txe batean dauden bi lagunek konpainiarik onena mugikorra izateak. Ordaintzen ez duten afaltiarrez osatuta daude mahai gainak. Euren kasa ez dira lekuz mugitzen, baina mugikorrak dira. Argitsuak dira, azkarrak, leialak. Gure barruei, eskuei eta buruei jaten ematen diete. Eurek gu ez, baina guk behar ditugu. Eta parekoei galdegitera edo kontatzera ausartu ez garena eurei esker jakinaraziko dugu. Gure salbazioa dira. Gure lotsa eta ezezko beldur denen aterpe. Horrelakorik! Haurren esku uztea ez omen da egokia, baina gure esku ahurretan ez daitezela falta!

Detektibe bihurtu gaitu bere funtzionamenduak, eta jarraitzaile gupidagabe erabilerak. Batzuentzat lanari aurea hartzeko modua izan daiteke aldi berean denei

mezu bat bidaltzeko aukera. Beste batzuei, ordea, atzeko lana egiteko tresna irudituko zaie.

Nekatu naiz mezuak birbidaltzen. Salatari lanak eta bozgorailu zerbitzua doan egiteak onura zekarrela zirudien, baina ez da hala. Milaka lagun mugikorretara iritsitako mezu biharamunean gezurtatzen aritu beharra gogorra da, edukia mingarria eta hunkigarria denean bereziki. Botoi bat sakatzeak mundu erdia suntsi dezakeela entzun izan da maiz, baina su pizte honetan ez dago estatuen arteko gatazkarik. Eraikitzen ari garen gizarte anker honen arma berriak dira. Botoi bati eman eta gezur bat zabal dezakezu zure kontaktu guztien artean. Kontakizun interesatu eta maltzur batek tsunamia eragin dezake, eta zabalkunde azkarrak azpian harrapa zaitzake.

Oraindik ere begietara begira egindako aitortzak maite ditut. Eskua luzatuta eskaintzen diren laguntzak. Eta ez begia ateratzera ino esku bakar batekin aktiba daitezkeen lagin hutsak. •



Koldo Salinas maisu txokolategilea istear den Brasil gozotegian. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

infraganti

KOLDO SALINAS

Txokolatea gozamen eta arte bihurtzen artista da Koldo Salinas. Berrikuntza eta sormena nahastuz, ehun bonboi mota baino gehiago egiteko gai den maisu txokolategilea da eta horren lekuko dira eskuratutako sariak. Erretiroa hartu berri du, eta, txokolategintzaren faktoria izan duen Brasil gozotegia pertsianak jaistear da.

Brasil gozodendak bere txokolate iturriaren azken tantak begien bistan ditu. Azken orduan lekukotza hartuko duen nor edo nor agertzen ez bada behintzat, datorren abenduaren 31n botako ditu pertsianak Irungo gozodenda ospetsuak. Haiekin itxiko da ere Koldo Salinas (Irun, 1949)

maisu txokolategilearen ibilbide oparoa. Usain tropikala du izenak; gozoa da, baina, Brasilen eskaintza. Esperimentazio eta berrikuntzaren emaitza izan dira erakuslehoan, txukun eta polit, hamarkada luzeetan agertu diren hamaika zapore eta koloretako gozoak. Denen gozamena. Horixe izan du xede Koldo Salinasek, eta,

guztion poltsikorako lan egiten ahalegintzeaz gainera, gozotegiko atea zabal-zabalik mantentzen esfortzu berezia egin du hamarkada luze hauetan. «Aitzinako txokolategiak zuten seriosotasuna gal zezaten saiatu gara etengabe. Eliza modukoak ziren, isiltasuna nagusi eta soilik jende *chic-a* sartzen zen bertara. Brasilen, behintzat, txokolategintza herriratzea lortu dugu,

edonor sartzen da hemen eta guk, maila batean bada ere, gure ametsa betetzea lortu dugu», dio pozarren.

DASTAMENA ETA IKUSMENA LAGUN

Elikagai gozoa arte bihurtzen artista da Salinas eta, sormena eta imajinazioa lagun, ehun bonboi mota baino gehiago egiteko gai da. Miniaturazko gutiziak Salinasen burmuinean dantzan diharduten formulak dira. Eta formula egokia topatu arte esperimentazioa du bide. Dastamenak gidatzen du txango horretan, baina baita ikusmenak ere. Izan ere, azkenaldian, koloreak ere hartu ditu bidaide. Japoniatik dator koloreek bonboietan izan ditzaketen aplikazioak aztertzeke joera, eta, Euskal Herriko txokolategi ospetsu honek segida eman nahi izan dio. «Bartzelonako gozogile batek erakutsi zidan bidea: koloreak modako dendetan ikasi behar dituzu», dio bere sekretua aditzera emanez. Aholkua jarraitu eta maiz ikusi dezakegu Salinas Gipuzkoako hiriburuko

kaletxoetan moda erakusleioak zelatatzen. Kolore eta zapore eztanda horren azken obra Yuzuko bonboia da, Japoniatik bertatik ekarritako limoiez egindako gutizia gozoa.

1949an ireki zituen atea Irungo erdialdean kokatutako negozioak. Kafetegia ere bazen orduan, eta gozogintzarako tailerra zuen. Koldoren aita bertan aurkitu zuen lana, eta lantegi arduradun izan ostean, negozioaren jabe egin zen 1958. urtean. Ordutik Salinas familiak gozotegia. Aurten arte. Koldo erretiroa hartuta dago dagoeneko, eta haren emazte Soledad Agirrek gidatuko ditu karrera luze honen azken metroak.

Elgorriagako fabrikak zipriztintzen zuen txokolate usainak busti zuen bere haurtzaroa. Gozogintzarekiko harremana estutu zen zazpi urte bete eta gurasoek Brasilen jabe egin zirenean. 1977. urtean are sakonagoa egin zen lotura, Koldok eta Soledadek hartu baitzuten negozioaren gidaritza. Dilema gogorrari aurre

egin beharrean zegoen Koldo 28 urte zituela: Euskadiko Kutxan lanpostua atera berritan, lan finko eta seguruari eutsi ala hil berria zuen aitaren negozioa hartu. Denborak aurrera egin badu ere, ez du ahanzi istant hura: «Amnistiaren astea zen, Jesus Maria Zabala hil zuten Hondarribian eta ni gestoretan nenbilen. Nire bizitzan beti gertatzen dira halakoak, gauzek elkartu eta eztanda egiten dute».

TREBATZEKO GRINA

Aitaren ondoan ikasitakoa praktikan jartzen hasi zela, bere ibilbidean erabakigarria izango zen Junkal Cuevas ezagutu zuen. Biarritzko Dodin txokolategian bonboiak eskuz bainatzen urteak eman zituen Cuevasek eta erretiroa hartuta Irunera itzulia zen. 1981. urteko lehen eguna omen zen Brasileratu sartu, gozoak erosi eta trukean bere jakintzak eskaini zituenean. Salinasek gogoan iltzatuta du egun hura, baita ondorengoak ere, Ipar Euskal Herriko kultura eta tradizioarekin begiak ireki baitzizkion-eta Cuevasek. Urtebetez astean hirutan musu truk aritzen ziren Cuevas eta Salina lantegian.

Bidasoaren hegoaldean bizi zen egoera, baina, oso bestelakoa zen. Gerraondo luzea izan zen eta azukrea luxua zen gehienentzat. Estatu espainoletik etorritakoekin Irun abiadura bizian hazten joan zen arren, behar bizia zegoen. «Maleta bakarra ekartzen zuten soka batekin gorputzari lotuta gainera. Ez dut irudi hori sekula ahaztuko», ekarri du gogora Salinasek. Migratzaileak zein bertakoak 1960ko hamarkadaren bueltan hasi ziren burua altxatzen, askok eta askok Ipar Euskal Herrian aurkitu baitzuten lana. Brasil gozotegia tren geltokitik gertu dago, ataritik entzun daitezke lokomotoreen orroak eta gogoan du egunero erakusleihoaren aurretik igarotzen ziren langile ilarak. «5.000 langile Hendaia eta Baionara zihoan trenera igotzen ziren egunero», dio oraindik hunkituta.

Lana eskuratuta, etxebizitzak erosten eta gutizientzako dirua

poltsikoratzen hasi ziren irundarrak, eta, Brasilen eskaintza jendartearekin batera aldatzen joan zen. Hasierako urteetan, herritarrek barruraino sartuta zuten gosea asetzeko, kafetegian janari azkarra eskaini, eta merengezko hostopilak ziren gozogintzako izarra. Giro ekonomikoa hobetzearekin batera, berrikuntzaren alde egin eta miniaturazko gutizia gozoak egiten hasi zen.

Cuevasen eskutik, txokolategintza artea izan zitekeela ikusi eta ikasita, bere trebakuntzan sakontzeko apustua egin eta gozogintzako gunerik garrantzitsuenak ezagutu ditu Salinasek. Kanada izan zuen lehen geltoki eta Calgary hiriko City Bakery ospetsuan Fritz Painsy eta Hans Uhlman maisu gozogileekin ikasteko aukera izan zuen. «Junkalekin bonboien barnealdea egiten ikasi nuen, oso lan monotonoa da, lotan ere geratu zaitetzke bonboiak eskuz bainatzen. Kanadan, aldiz, teilatua egiten ikasi nuen, hutsak zeuden bonboiak betetzen genituen. Barrukoa eta teilatua egiten jakinda, zimenduak behar nituen», ekarri du gogora.

Ia dirurik gabe, baina ikasteko irrikaz, Paris izan zuen bigarren eskola. Astebete igarotzeko dirurik besterik ez zuen arren, goiz eta arratsaldean ondo baliatu zuen Pariseko LeNôtrek eskaintako aukera. Bonboiak formulak zirela ikasi zuen bertan. «Formulak ez daude asmatuak, ez denak behintzat, eta, horiek ezin dira irakatsi. Formulek sortzen laguntzen dute eta esperimentuen bidez iristen zara haietara». Huraxe Pariseko leziorik garrantzitsuena.

Miniaturazko gutiziak Salinasen burmuinean dantzan diharduten formulak dira. Formula egokia topatu arte esperimentazioa du bide, eta dastamena eta ikusmena gidari

«Aitzinako txokolategiak zuten seriositasuna gal zezaten saiatu gara. Eliza modukoak ziren. Brasilen, behintzat, txokolategintza herriratzea lortu dugu, edonor sartzen da»

Hori deskubrituta lurrinak zapore bihurtzeko ahaleginean tematu da urte luzez. Tabakoarekin, garagardoarekin edota, Pirinioetako belarrarekin egiten ditu bonboiak. Esperimentatzea atsegin du, ongi daki, baina, ideia onek ez dutela zertan arrakasta izan. «Bonboi eta gozo on asko bota ditut zaborretara saltzen ez zirelako», dio penatuta.

Gozogintza lantegia laborategi bihurtu du. Goizean goizetik hasita eta atsedean egunik gabe, bizitza eman du txokolategintzaren faktorian. Izan ere, bere buruarekin egiten ditu froga gehienak: «Egin ahala probatzen ditut. Lantegiko eta dendako langileek ere probatzen dituzte eta denen oniritzia lortzen badu, erakusleihora doa. Hori da frogaz zailena. Asko dira bonboiak eroatera etorri eta Koldoren gauza arraro horiek mesedez ez jartzeko eskatzen dutenak», dio barrez.

Arauak hausteko daudela pentsatzen duten horietakoa da Salinas eta horren lekuko tabakoz betetako bonboiak dira: «Erretzea debekatzen hasi zirenean hasi nintzen ni –dio bihurrikeriaz betetako irribarre batekin–. Lehenengo txokolate zaporea du, ondoren menta, eta, amaieran bakarrik du tabako zaporea. Dastamen papilak aztoratu egiten dira tabakoari koska eginda, sentsazio izugarria da».

Bere lanaren arrakastaren adierazgarri izan diren sariak azkar eta kopuru izugarria iritsi dira bere ibilbide osoan zehar: Trufen Dastaketako I. saria eta Praline Dastaketako I. saria Jean Marie Sibelaner Sari Nazionalen (Gasteiz, 1991); Mazapanezko Bonboiaren I. saria, Bonboi Espezialitatearen I. saria eta Estiloaren I. saria, Annecyko Nazioarteko Jaialdian (Frantzia, 1993). Urte hartan bertan honoris causa zaldun izendatu zuen Frantziako Txokolatearen Ermandadeak.

Gogoan du bereziki 1994an Armagnac Bonboiaren Jaialdian parte hartu zuteneko hura. Garai hartan bikoteak urteko oporrak baliatzen zituen lehiaketetan parte hartzeko eta orduko hartan Estatu frantseseko Mont-de-Marsango parajeetan eraku-

tsi zituzten beren abilitadeak. Gozogintzaren arloan Salinasek, eta dekorazio munduan Agirrek. «Bertako jendarteak ondo aztertu genuen eta haien araberrako erakusleio bat prestatu genuen, erabat rokoko. Apenas gasturik gabe, ausartak ginen oso. Armagnac Bonboiaren I. Saria eta aurkezpen onenaren saria irabazi genuen». 1990ko hamarkadaren sariak ez zuten atsedeenik izan. Tartean Atzerriko Bonboigile Onenaren Excellence saria 1995. eta 1998. urteetan.

Salinasek badaki etxean baino maiteagoa dela atzerrian. «Inor ez da bere lurrean profeta. Gainera, sistemarekin bat ez datorren pertsona naiz eta hori ondo dakite. Beste kolore politiko batekoa izango banintz xamurragoa izango litzateke bidaia, baina halakoa naiz eta ez naute jada aldatuko», dio ozen.

LEHENGUSU TXIKIA

Gozogintza gastronomiaren lehengusu txikia dela ongi daki irundarrak. Errealitate horren erru nagusia, alabaina, gozogileena euren dela dio: «Guk ez dugu jakin gure produktuak saltzen, autokritikoak izan behar dugu».

2008. urtean sukaldeko lanez gainera, ordenagailu aurrean eseri eta «Dulces caprichos» liburua kaleratu zuen Ttarrtalo argitaletxearekin. Esperientzia «gazi-gozotzat» jo arren, sukaldaritzako liburuen Oscar sari moduan ezagutzen den Gourmand Word Cookbook Award izeneko saria irabazi zuen.

Bizitza osoa lanean eman ostean, erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio, baina komertzio txikiaren geroak oso kezkatuta du; «multinazionalen eta txinatarraren esku geratzen ari da dena», dio hausnarketa sustatu asmoz.

Erretiroa hartuta dagoen arren, ez du atsedeenik hartzeko abagunerik hartu, jo eta su ari baita unibertsitateko sarbidea gaintzeko ahaleginean. Soziologia ikasketak egitea du helburu eta txokolategintzan bezain tematia bada, laster edukiko dugu soziologo berri bat Euskal Herrian. •

oihana.llorente@gaur8.info

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> SolarBox

Londresko telefono kabina gorri mitikoak berdez janzten hasi dira. Ez da kolore aldaketa soila; izan ere, eskaintzen duten zerbitzua ere aldatu da. Eguzki energiari probetxu aterata, telefono kabinetan telefono mugikorretako bateria kargatzeko aukera izango da. London School of Economicseko bi ikasle ohik sortu duten proiektuaren emaitza da. “Jada inork ez zituen kabinak erabiltzen eta kalean ez dago mugikorrak kargatzeko aukerarik”, azaldu dute.

> Selfie

Parisko Orly aireportuko fatxada guztia milaka aurpegi biltzen dituen horma irudi erraldoi batekin estali dute. Teniseko hamasei pistaren tamainakoa da, 3.200 metro koadrokoa, eta aireportutik igaro diren bidaiarietako asko agertzen dira bertan. Selfie erraldoi bat da, uda partean aireportuko arduradunek abian jarritako kanpaina baten baitan osatutakoa. Aireportuan barna egindako argazkiak dira, eta kanpainaren izena argigarria oso, «Mundu guztia da gure gonbidatu».

> Marte


Igandean, urriaren 19an, Siding Spring kometa Marte planetaren «albotik» igaroko da. 138.000 kilometrora igaroko da, espazioko distantziei dagokionez, gertu samar, Lurraren eta Ilargiaren artean dagoen distantziaren erdia inguru. Espero da ikuskizun ederra izango dela eta horren irudi onak jasoko dituztela Marte inguruan dauden orbitadoreek. Gure Eguzki Sistemako kometa bat modu garbian jasotzeko aukera izango dela uste da. Itxaron egin beharko.

> Movitz

Movitz ez da ferry arrunt bat. Stockholmgoren uretan zarata handirik atera gabe eta CO2rik sortu gabe ibiliko da aurrerantzean. Echandia Marine enpresak eraiki du eta hiriko erdialdetik kanpoaldea dauden auzoetarako bidea egingo du. Denbora epe laburrean, hamar minutuan, kargatzen den bateria bati esker ibiliko da. Horrekin ordubeteke autonomia izatea lortuko du eta bederatzi korapiloko abiadura. Hala, ferryak 130 tona CO2 gutxiago isuriko du airera.

> Isuna

Tarragonako autobia bateko radarrak harrapatu zuen, onartutakoa baino abiadura handiagoan, eta 100 euroko isuna iritsi zitzaion etxera. Horraino, dena ohikoa. Autoaren jabea zur eta lur geratu zen isuna jarri zioten unean bere autoa garabi baten gainean zihoalako. Matxura izan zuen, garabiari deitu zion, eta garabi gainean eraman zuten autoa konpontzera. Trafikoko arduradunek «akatsa» onartu dute eta isunaren dirua bueltatuko diote jabeari.



GUREGIPUZKOA.NET

OSA-ARIZNABARRETA SENDIA, BERGARAKO IBARROLA BASERRIAN

Bergarako Ibarrola baserria, 1961. urtean. Baserriaren aurrean, etxeak: Juan Osa eta Maria Ariznabarreta senar-emazteak; Arrate eta Javier seme-alabak eta Donato aitona. Belar meta ere ageri da, egunotan gero eta nekezago ikusten dena. Etxekoan posea bikaina da eta gauza asko kontatzen ditu. Esaterako, garai batean argazki bat ateratzea gauza handia zela, arreta merezi zuena eta bizitzan gutxitan gertatzen zena. ©CC-B-ND: Indalecio OJANGUREN. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Victoria Fernandez, Edurne Larraza, Montse Maritxalar, Txelo Ruiz
EHUko Informatika Fakultateko e-makumeak taldeko kideak



Teknologia, hezkuntza eta generoa

Teknologia entzutean makinak irudikatzen ditugu: trenak, autoak, fabriketako makinatzarrak... gailu edo tramankulu mekanikoak, alegia. Azken urteotan, ordea, teknologia berriak deritzonak sortu dira: ordenagailuak, robotak, aisialdirako eta etxeetarako trepetak... gailu elektronikoak,

oro har. Makina mekanikoak pertsonen lan fisikoa arintzeko diseinatzen dira; gailu elektronikoak, berriz, beste zeregin batzuetarako: informazioaren tratamendua azkartzeko (ordenagailuak, kasu) edota pertsonen arteko komunikazioa zabaltzeko (telefonoak...). Hortik IKT terminoa: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, Informatika eta Telekomunikazioak barne.

Teknologien irakaskuntza/ikaskuntza, hezkuntza mundua. Historikoki, teknologia mekanikoak eta halakoak ingeniartza eskoletan ikasi eta irakatsi dira. Telekomunikazioak ere hasieratik bertatik ingeniartza eskoletan txertatuak izan ziren. Informatikarekin, ordea, zerbait berezia gertatu zen. Hastapenetan, zailtasun teknologikoen kausaz, ezagutza teorikoek hartu zuten aurrea. Hala, gure inguruan (Hegoaldean, behinik behin), informatika ez zen ingeniartza bat, lizentziatura bat baizik, eta informatika fakultateak sortu ziren unibertsitateetan. Bertan, informatikaren alor guztiak ikasten ziren: softwarea edo programazioa, hardwarea edo ordenagailuak, konputazioaren teoriak, eta abar. Baina ordenagailuak ez zeuden edonoren eskura: kalkulu zentroetan bakarrik zeuden, eta bertan teknikariak bakarrik aritzen ziren lanean; programatzaileek, nolabait, lan “teorikoagoa” egiten zuten, ordenagailutik aldentuta, beraien programak azkenean ordenagailuetan exekutatzeko ziren arren. Elektronikaren garapen azkarrari esker, ordenagailuak zabaltzen joan ziren, eta beste ikuspuntu

bat hasi zen indartzen; ikasketen izena eta izaera ere aldatu zen: Informatika Ingeniartza bihurtu zen lehen lizentziatura zena. Horrekin batera, jendartean ere informatikaren berri zabaltzen joan zen, eta ordenagailuak edonon agertzen hasi ziren; hortik, informatikariaren estereotipoa sortzen hasi zen: mutil gaztea, bakartia, pertsonetik harreman eskasekoa... Ondorioz, emakumearen presentzia ahultzen hasi zen: informatikaren lizentziaturan emakumezkoek osatzen zuten ikasleen erdia gutxi gora behera, baina ingeniartza bihurtzearekin bat, emakumezko ikasleen kopuruak behera egin zuen.

Generoa. Orain dela ez hainbeste, emakumeek debekatua zuten unibertsitatean ikastea. Pribilegiatu batzuek baino ez zuten lortzen prestakuntza jasotzea, haien etxeetan, irakasle partikularrekin, baina betiere “osagarri” edo “apaingarri” gisa, ezkontzean etxekoandre bihurtuko baitziren (lehen programatzailetzat hartzen den Ada Lovelace horren adibide).

Emakume aitzindarien borrokari esker, hainbat eskubide erdietsi ziren. Gaur egun, gure jendartean, gezurra emango luke egoera horrek, ez bada historia liburuetan eta dokumentaletan agertzen delako. Emakumeok, teoriarik, nahi duguna ikas dezakegu. Baina emakumeak jakintza arlo batzuetara lerratzen dira gehienbat: ikasketa humanistikoak, hezkuntzarekin erlazionatuta daudenak edo osasunarekin zerikusia dutenak. Ikasketa tekniko edo ingeniartzak, gehienbat, maskulinoak dira, azken urteotan emakumeen presentzia handitzen joan den arren.

Ingeniartzetan ikasten dena mundua eraldatzeko erabiltzen da. Zeregin horretan munduko biztanleriaren erdiak zeresan handia eta garrantzitsua dauka. Gure esku dago, beraz, emakumeon esku, alegia, teknologian eragitea ildo horretatik, mundua hobetze aldera eraldatzeko, pertsonak kontuan hartuz. •

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:



Ada Lovelace hartzen da lehen emakume programatzailetzat. GAUR8

JANGURA PRODUKZIOAK-EN PROIEKTU BAT

GOSARIAK

CD-LIBURUA

XARMA BEREZIKO LANKIDETZA EGITASMOA

Testuak Joseba Sarrionandia **Musika** Gose
Ilustrazioak eta diseinua Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea



GARArekin
salgai
Larunbata 25
eta igandea 26

8,95€
Soilik

HARPIDEDUNENTZAKO
ESKAINZA BEREZIA: 7,95€

Erreserbak hilaren 21a, asteartea 15:00ak baino lehen, egin,
944-24 55 56 telefonoan edo publiblbo@gara.net helbidean.
Bidalketa gasturik gabe igorriko da.

"Bi gose mota daude, aho-urdailekoa eta zentzu-gogamenekoa.
Hemen dituzue gogoarentzako gosariak"

